

ARGITARATUAK:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lbande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza* Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografia de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachitguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*. Joakin Berminghamen solasak 2020
32. *Emil Larre*. Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*. Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*. Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez, arrazoirik ez / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratçabal*. Blanca eta Viana. Nafarroako Blanca trajeria

*EUSKALTZAINAK* izeneko bilduma berriari euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Laguntzailea



**37** **EUSKALTZAINAK** BILDUMA

**BLANCA ETA VIANA**

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

JEAN-LOUIS  
DAVANT  
IRATÇABAL

# BLANCA ETA VIANA

Nafarroako Blanca trajeria



**EUSKALTZAINDIA**



**JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL**

Ürrüstoi-Larrabilen (Zuberoa) jaio zen, 1935eko uztailaren 5ean.

Agronomia ingeniaria. Erretiroa hartuta Hazparneko Laborantza Eskolan irakasle izatetik.

Euskaltzain urgazle izendatua 1965eko irailaren 24an eta oso 1975eko otsailaren 28an. Euskaltzain emeritua da 2010eko uztailaren 23tik. Sarrera hitzaldia Anton Abadiak eta Joseph Augustin Xahoz irakurri zuen Maulen 1976ko abuztuaren 22an.

1957tik idazle militantea aldizkari eta kazeta andana batean laborantzaz, ekonomia orokorraz, sozial arazoez, politikaz, hizkuntzaz, kulturaz, historiaz. . .

Euskaraz hogeita hamar liburu idatzi ditu: eleberririk bat, zortzi olerki sorta, hamaika saio, hamar pastoral edo «trajeria» publikatuak, horietarik zortzi antzeztuak; gehi hainbat liburuxka, gehienak haurrentzat frantsesetik eginiko itzulpenez.

Frantsesez *L'économie basque* (Enbata 1967), *Histoire du peuple basque* (Goiztiri-Elkar 1970-2007), *Le « problème basque » en 20 questions* (Elkar 2006 eta 2012), *Petite histoire du Pays Basque* (Cairn 2017), *La pastorale basque* (Elkar 2019).

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

BLANCA ETA VIANA

Nafarroako Blanca trajeria

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren  
Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en  
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles  
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,  
Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Euskara batuan idatzitako testuen hizkuntza-orrasketa:  
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© Jean-Louis Davant Iratçabal

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-124296-7-1

Lege gordailua: BI-00589-2022

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

# BLANCA ETA VIANA

Nafarroako Blanca trajeria

EUSKALTZAINDIA

BILBO  
2021



## AURKIBIDEA

I.	NAFARROAKO ZURIA I.A	
	ETA VIANAKO PRINTZEA .....	9 or.
	Bihurgune bat historian .....	9 or.
	Andere bat errege .....	11 or.
	Zuriaren aitaita .....	12 or.
	Zuriaren aita-amak .....	14 or.
	Zuria eta Joan senarra .....	15 or.
	Joan I.a eta Joana bigarren emaztea .....	18 or.
	Karlos IV.a, Vianako printzea .....	20 or.
	Vianaren familia, haurrak eta idazlanak .....	24 or.
	Zuria II.a, alaba desprenmutua .....	25 or.
	Leonor I.a, erregina iragankorra .....	25 or.
	Subirano nafar-bearnesak .....	26 or.
	Frantzisko Febo, errege gaztea .....	28 or.
	Katalina eta Joan Albret edo Labrit .....	29 or.
	Fernando Katolikoa, Nafarroako errege? .....	31 or.
	Henrike II.a Albretekoa eta Margarita .....	31 or.
	Margarita Nafarroakoa .....	33 or.
	Joana III.a Albretekoa .....	34 or.
	Frantziaren azpira .....	36 or.
	Burutzeko .....	37 or.
	Bibliografia .....	38 or.
II.	NAFARROAKO BLANCA TRAJERIA (zubereraz) .....	39 or.
	Aurkezpena .....	39 or.
	Edirengia .....	41 or.
	Lehen perediküa .....	43 or.
	Sataneria .....	44 or.
	1. Jelkaldia .....	45 or.
	2. Jelkaldia .....	47 or.
	Kanta: <i>Esposen kantorea</i> .....	48 or.
	3. Jelkaldia .....	49 or.
	4. Jelkaldia .....	50 or.
	5. Jelkaldia .....	51 or.

Kanta: <i>Usuaren koblak</i> .....	52 or.
6. Jelkaldia .....	53 or.
7. Jelkaldia .....	54 or.
8. Jelkaldia .....	55 or.
Kanta: <i>Aita zenari</i> .....	57 or.
9. Jelkaldia .....	58 or.
10. Jelkaldia .....	59 or.
11. Jelkaldia .....	60 or.
Kanta: <i>Iratiko basoa</i> .....	61 or.
12. Jelkaldia .....	62 or.
13. Jelkaldia .....	63 or.
14. Jelkaldia .....	64 or.
Kanta: <i>Eskerrak Blankari</i> .....	65 or.
15. Jelkaldia .....	66 or.
16. Jelkaldia .....	67 or.
17. Jelkaldia .....	68 or.
Kanta: <i>Blankaren azken otoitzea</i> .....	69 or.
18. Jelkaldia .....	70 or.
19. Jelkaldia .....	71 or.
20. Jelkaldia .....	72 or.
Kanta: <i>Nafarroa desferra</i> .....	74 or.
21. Jelkaldia .....	75 or.
22. Jelkaldia .....	76 or.
Kanta: <i>Zaragozako kartzela</i> .....	77 or.
23. Jelkaldia .....	78 or.
Kanta: <i>Nafarroa ereserkia</i> .....	79 or.
Azken perediküa .....	80 or.
Kanta: <i>Iratin goiti eta behera</i> .....	81 or.

### III. HISTORIALAT SOZ:

ZÜBEROA ETA NAFARROA (zubereraz) .....	83 or.
Züberoak zin egiten dü .....	84 or.
Bi printzeri .....	86 or.
Andorrrak bezala! .....	87 or.
Garaia eta Beherea .....	87 or.
ERANSKINA .....	89 or.
Iruñeko eta Nafarroako erresumako	
errege-erreginen izendegia .....	89 or.
a) Iruñeko erresuma .....	89 or.
b) Nafarroako erresuma (Nafarroa Beherean) .....	93 or.

# I

## NAFARROAKO ZURIA I.A ETA VIANAKO PRINTZEA

### Bihurgune bat historian

Zuria I.aren erreinaldiak (1425-1441) eragin handia izan du gure historian, nahiz erregina umila izan zen, umilegia Joan II.a senarraren eretzean. Historiako bihurgune nagusi batean gertatu zen, eta bihurgune hori areagotu zuen bere uzkurtasunaz eta herabeaz, senar asezinari Nafarroako hazkurrien ateak irekiz. Urrats hori ez zen gure onerako gertatu, gizon bortitz eta maltzur horrek euskal erresuma zaharra galbidean sartu baitzuen bere gerla pribatuez, botere gosez eta jukutriez, geroago ikusiko dugun bezala.

Baina lehenik Zuria I.aren erreinaldia bere denborako giroan koka dezagun. Erdi Aroa bukatzen ari zen, baita Frantziar Ehun Urteetako Gerla ere (1337-1453). Zuria I.a (1386-1441) Joana Arc-en garaikidea dugu (1412-1431). Frantses andere gaztearen epopeia laburrak (1328-1331) frantziar batzuen gogo-bihotzak sustatuz, Frantziako erregeari gaitzeko zerbitzua egin zion erresumaren berreskuratzean.

Historiazale batzuek hortxe ikusten dute frantziar nazionalismoaren sorrera. Frantziako erregearen meneko jendearengan sentimendu nazional bat pizten hasi omen zelakoan ingeles agintearen aurka eta martir gaztearen alde: horren lekuko ditugu garaiko poeten idazki batzuk, bereziki Christine de Pisan anderearen *Le Poème de la Pucelle*, eta François Villonen neurtitz ezagun hau: "Et Jeanne la bonne Lorraine qu'Anglais brûlèrent à Rouen".

Laster Karlos VII.a erregeak lurreko armada finko bat eraiki zuen, kanoiz ongi hornitua: historian barna Frantziako gudalosteek artilleria gotor bat ukan



izan ohi dute gehienetan. Eta defentsaren zerbitzuko, errege horrek zerga sistema iraunkor bat asmatu zuen. Hortik aurrera, Frantzia hedatuz joan zen errege absolutuen inguruan, usu bortizki, eta bere *Mémoires* delakoetan De Gaullek idatzi zuen gordinki: *La France s'est faite à coups d'épée*.

Beste erresuma aurreratuak ez dira kanoirik gabe geldituko, eta europarrak orokorki suzko armez baliatuko dira munduko parte zabal batzuen kolonizatzeke.

Espainia batasunerantz abiatua zen, gogorki hau ere, Trastamara etxearen eraginez eta onetan, bereziki “gure” Joan II.aren seme Fernando Katolikoari esker. Aitak Aragoiko tronua utzi zion, berak Gaztelakoa bildu zuen Isabel erregekin esposatuz, biek Granada hartu zuten 1492an, ber urtean Kristobal Colon Kubara heldu zen, eta 1512an Fernando alargunduak Nafarroa zaurituari errematea eman zion. Laster Karlos V.aren Espainiako inperioak mundu berriko eta Europako parte zabalak beretu zituen. Haatik azken batean Gaztela Espainia zen, edo Espainia Gaztela zen, kasik erran nezake Trastamara etxea.

Bere aldetik, Portugal ez zen lo egon. Henrike Nabigatzaileak (1394-1460) nabigazio eskola bat eraiki zuen Sagresen eta hortik portugaldar itsasuriak bulkatu zituen Hego Atlantikora, Afrikako lehor eta uharteen ikertzera, Portugalgo itsas inperioari bideak irekiz. Amerikan Espainiak parte handi bat hartu zuen italiar bati esker, baina Portugalek Brasil beretu zuen halere.

Artetik errateko, italiar nabigatzaile batzuek eragin handia ukan zuten Amerikaren esploratzean: Colonen ondotik ibili zen Ameriko Vespuzio, eta ohartu lehor berri hura ez zela, Colonek uste zuen bezala, Indiaren bizkarra, kontinente ezezagun bateko bazterra baizik. Hortik Amerika izena. Beste italiar batzuk ere esplorazio lanetan aritu ziren, bereziki Caboto aita-semeak, bata Kanadako uharteetan, bestea Río de la Platan.

1453an, otomandarrek Konstantinopla hartu zuten, eta italiar itsasturiei atea hetsi zien Mediterraneo ekialdean, ber denboran merkatariei India eta Txinarako bidean. Holaz italiar nabigatzaile batzuk Atlantikora lerratu zirela ematen du, eta portugaldarrek Afrika bazterrez ekialde urrunerako bidea bilatu zutela.

Bizantziar artista eta jakintsu batzuek ere sartalderako bidea hartu zuten, Europa mendebaldean garatzen hasia zen Pizkunderako mugimendua lauzkatuz.

Italian zendu berriak ziren Dante (1321), Petrarca (1374), Boccaccio (1375), Frantzian Guillaume Machaut poeta musikaria (1377). Erresuma horretan Zuriaren garaikideak ditugu olerkari ezagun batzuk: Christine de Pisan, goraxeago aipatu dudana (1363-1431), Alain Chartier (1386-1449), Charles d'Orléans (1391-1465), eta hor jaio zen François Villon (1431-1480), hau

ere goian aipatu dudana. Nafarroan Erriberriko jauregiak nazioarteko artistei ongietorria egin zien, Errenazimentuaren aitzineko giro bati hauspoa emanaz.

Alemania hurbilean Kempisek *Jesu Kristoren Imitazioa* publikatu zuen 1420an, Gutembergek inprimeria asmatu 1436an, eta Biblia inprimatu 1455ean, latinez prefosta. Parisen lehenbiziko inprimeria sortu zen 1470ean. Teknika berri horrek liburuen argitalpena eta zabalkundea zinez erraztu zituen, eta horrez jakintza, literatura eta laster erlijio erreformatua sustatu zituen.

Hots, mundua zinez aldatzen ari zen, bereziki teknika berriei esker. Nabigazioa, artilleria, inprimeria, indar berrien alde joan ziren nagusiki, horiez baliazeko ahalmen gehienik dutenen onerako: errege azkarrenek garatuko dituzten estatuei mesede egin zien, teknika berri horiei esker Europakoek munduan gaina hartu zuten. Amerikaren jabegoak ere abantaila handia ekarri zien, bereziki Europa bezain aberats eta aurreratuak ziren India eta Txina bezalako inperio indartsuei lehentzeko.

Europa kristaua estatu hetsika zatitzen ari zen. Emeki bada emeki, estatu horiek Aita Sainduaren menetik atera ziren. Errege absolutisten atzetik nazio absolutistak sortzen hasi ziren. Bi erresuma handi eta bortitzen artean, euskaldunek bihurgune hori huts egin zuten Zuria I.aren ondotik. Ikus dezagun nola.

## Andere bat errege

Zuria I.a Nafarroako erregina izan zen 1425etik 1441era. Aita, Karlos III.a Noblea edo Prestua, eta ama, Leonor Trastamarakoa, beraz gaztelaua. Zuria Nafarroako tronura igan zen aitaren ondotik. Puntu horrek argibide bat behar du Iparraldeko irakurleentzat, Frantzia behere horretako historiaz galkatu gaituztelako, gurea ezabatuz. Frantziako erregina erregearen emaztea baizik ez zen, beraz erregina ezkontide edo kontsortea. Botere politikoan parterik ez zuen, salbu alargundu ondoan, adin gabeko premuaren errege karguan. Bitartean erreginaren eginbide bakarra erregeari ondoko baten egitea zen, horretarako haur andana sortuz, denbora haietan erdiak bederen adin txiki-txikian hiltzen baitziren. Koroaren transmisioan erreginak lekurik ez zuen. Erregeak semerik ez ukanez eta alaba bai, hura ezin zen tronura igan, ez eta haren ondokorik ere, semea izanarren. Errege zenduak oinordekotzat zuen bere askazi ar hurranena: anaia, osaba, kusia. . . Adibidez, Henrike IV.a famatua Henrike III.aren kusia zen.

Nolanahi ere, lehenbiziko erregeak gerlarako aitzindariak baitziren oroz gainetik, gudariak eta gudalburuak, kargu horretarako gizon baten hobesteko joera indarrean zegoen, naturalki bezala, salbuespen handi zenbaitekin. Gero erresuma garatu ahala, lanaren zatiketa bat bazetorren goian, eta delako usaia zaharra bere indarretik doi bat galtzen ari zen, baina –Filipe Ederra errege gogorrek legeztatu zuen 1300. urte inguruan, “Francs saliens” delako arbasoen ohiturari dei eginez: lege salikoa finkatu zuen, zinez falikoa. “Exception française”, frantses salbuespena hau ere. Inguruko erresuma eta printzerrietan ez baitzen holakorik, han edo hor emakume famatu batzuk ikusten ditugu botere gorenean, adibidez Bearnon eta Nafarroan Joana III.a Albretekoa, Akitanian Leonor, Britainian Ana dukesa, Eskozian Maria I.a Eskoziakoa erregina, Ingalaterran Elisabet I.a eta II.a, Gaztelan Elisabet Katolikoa...

Nafarroan bereziki erregearen alabak aitaren segida har zezakeen, edo berdin amarena, erresumako jabe subiranoaren aulkian. Beraz, 1425ean, Karlos III.a zendu zenean, Zuria I.a tronura igan zen Gorteen baimenarekin. Ber denboran, Nemourseko kondesa bilakatu zen hil arteraino (1425-1441). Baina goazen urraska. Lehenik aitaitaz eta gurasoez bi hitz erran behar ditut, merezi baitute.

## Zuriaren aitaita

Zuriaren aitona, Karlos Noblearen aita, frantsesek “Charles le Mauvais” deituriko Karlos II.a dugu. Nafarroako Joana II.aren eta Evreuxko Filipe II.a erregearen seme gehiena zen, aitarenganik Frantziako erregeen kusi urruna. Frantzian sortua 1332an, ama zenduaren segida hartu zuen 1349an, 17 urte zituela. Koroa 1350eko ekainaren 27an jaso zuen Iruñeko katedralean, lau apezpikuren aurrean, hots Iruñea, Tarazona, Baiona eta Oloroeko gotzainen aitzinean. Frantziako Joan II.a (*Jean II le Bon*) erregearen alaba Jeanne esposatu zuen. Iruñean zendu zen 1387ko urtarrilaren 1ean, eta gorpua horko katedralean hilobiratu zuten.

Karlos II.a Frantziako politikan sartu zen erdiz erdi, erresuma horretan zituen Champagne eta Normandia lurraldeen zaindu nahiz. Ehun Urteetako Gerlan parte hartu zuen, lehenik Joan II.a aitagarrebaren alde, gero aurka, frantsesak huts egin baitzion lurralde horien gaineko jabegoa ukatuz, errespetatzea hitzeman ondoren. Une batean Karlos Frantziako tronuaren esku-

ratzetik oso hurran ibili zen, Joan II.a Frantziakoa Ingalaterran gerlako presoner zegoelarik Poitiersko guduka galduaren ondorioz. Parisen Etienne Marcel merkatari matxinatuen aitzindariarekin ongi konpondu zen, tronuz jabetzen lagundu zezan, baina Marcel hori Joan II.aren aldeko bi gizonen erail zuten, eta mugimendua hortxe bukatu zen (1358).

Ber denboran, Karlos II.a laborari matxinatuen aurka sartu zen, jaeneriaren boterea mehatxatzen baitzuten, eta holako iraultzarik ezin zuen onartu jaunen jaun horrek. Baina ezin garaituz negoziatzera deitu zuen haien aitzindaria, Guillaume Carle. Berehala hitza jan zuen, gizona preso hartu, hiltzera kondernatu eta 800 lagunekin erail zuten lepoa ebakiz, berari burdinazko koroa bat sutan gorriturik burutik behera jarri ondoren. Hor bai itsuski faltsua eta zinez gaiztoa izan zen Karlos II.a, “Gaiztoa” izengoitia ongi merezituz.

Kontraerran handiak bazituen gizon bortitz horrek. Adibidez, Nafarroan juduak babestu zituen 1570ean, orduzkoz Gaztelatik ihes zetozela. Merezimendu soberarik ez zaio halere aitortu behar hor, erresumako finantzak ez baitzuten deus galtzen aterpetu horiekin.

Musikari toki ederra eman zion bere gortean, eta soinulari eta juglareak jinarazi zituen Baionatik, Frantziatik, Alemaniatik, Ingalaterratik eta Gaztelatik. Adiskide zuen Guillaume de Machault frantses olerkari-musikaria, XIV. mendeko famatuena, 4.000 neurtitzeko obra eskaini ziona, *Jugement du roi de Navarre* deitua. Bestalde, unibertsitate bat eraiki nahi izan zuen Uxuen, baina ez zuen lortu.

Hiru hatz, herexa eta marka baikor utzi dizkigu hiru toki ezagunetan: lehena, Muskildin San(t) Antoniko kapera 1385ean eraikarazi zuena Atharratze-Lüküzarren eta Bidaxuneko agaramontarren artean bakea finkatu nahiz, eta non altzarazi eta Zuberoako lurrian, Nafarroarekiko muga ez baitago mendi kasko horretan, baina sartaldeko zolan, Donaixtikoko lehen etxeetarik hurbil. Beraz hor agerian dugu Zuberoa herriak Nafarroako Erresumarekin atxiki zuen lokarri berezia, ofizialki Akitaniako dukearen meneko izan arren.

Jaunen arteko guduka horiek 1315ean dokumentatuak izan ziren lehenetxe. XV. mende erditsutik beaumontarren eta agaramontarren artekoak deitu zituzten, Beaumont jauretzea ezkontzaz Lüküzekoaren askazi eginik, gatazka Nafarroa Garaira hedatu zelarik laster ikusiko dugun bezala. Hor anexoarekin gelditu zen, beaumontarrak Gaztelako erregearen aliatuak izanez, agaramontarrak aldiz Nafarroako errege legitimoen aldekoak. Iparraldean, ordea, luzatu zen Amikuzeko bi oilarren artean, bereziki erlijio gerlen kariatara, eta horiekin bukatu XVI. mende hondarrera. Atharratze-Lüküzeko jauretzea hondatu zen, Agaramontekoa suspertu.

## Zuriaren aita-amak

Bretainiako Nantes hirian sortua 1361ean, Karlos III.ak 38 urtez bakea ekarri zion aitak gerlen eta zorren azpian itorik utzi zion Nafarroari. Gaztelako errege Henrike II.aren baketu zen 1375ean eta haren alaba Leonorrekin esposatu zen Sorian. Ezkontza politikoa naski, ordu hartan ohi zen bezala. Horren etsenplu guztiz ohargarri bat badugu Nafarroako historian mende bat berantago, Joana III.a Albretekoari gertatua. Frantses lehena osaba erregearen manuz, hamahirugarren urtean ezkonarazi nahi ukan zuten Clevesko aleman dukearekin, hura Karlos V.aren etsai handia zelako; Joanak ez zuen nahi izan. Amak, Margarita humanista kristau handiak, —eta egiazki hala zen— zigortu zuen, azotatuz, eta bortxaz elizara eramanez; baina han, aldare aurrean, apezaren ohiko galderari neskatoxeak “ez” eta “ez”, Jainkoak daki zenbat aldiz! Bi urtez ezetzean tematu zen, eta birjina egon. Azkenean, aita-amek baino zentzu gehiago edukiz apantziala, Clevesko jaunak ezkontza horri uko egin zion. Haatik, Leonorrek ez zuen holakorik egin, ezkontzerakoan bederen, eta geroak gero...

Dena dela, amodiozko ezkontza franko gauza berria dugu mendebaldeko mundu kristau edo kristau ondokoa, handikien artean oraindik ez arrunta, eta gehiengotik urrun dago mundu zabalean. Beste kulturetan, ezkongaien bi familiek oraindik antolatzen dute beren artean; haatik, batzuei lana korapilatzen ari zaie neskak eskolatzen diren arau.

Gainera, Pierre Narbaitz idazleak *Quand les Basques avaient des rois* liburuan dioskun bezala, Karlos III.a erregeak dohain guti zukeen monogamiarako, ezen lasai baitzebilan lorez lore: ezkontzaz kanpoko lau haur ezagutuko zituen ofizialki. Erregina, bekaizturik duda gabe, 1388an ihesi joan zen Gaztelara, bere anaia Joan II.aren gortera, senarrarekin ukan zituen hiru alaba txikiekin, horietarik gazteena Zuria, noizbait erregina izanen zena, bainan orduan ezin zen jakin. Leonor, zazpi urtez sorlekuan egonik, anaiak zentzatzera bulkaturik, 1395ean Erriberrira itzuli zen. Gero bikotea hobeki konpondu zen, eta beste bost haur ukan zituen.

Karlos III.ak Erriberriko jauregi famatua eraiki zuen erromatar kokaleku bat handituz eta berrituz. Kanpotik frantses gotikoaren itxuran egin zuen, eta barnetik arte mudejarraren eragina eman zion. Errege-erreginen egoitza hor finkatu zuen, gordean kulturako bizitza distiranta garatuz, Pizkunderako bi-dean. Kultura gizona zen, humanista, arteak eta liburuak maite zituen. Musikariak eta kantariak erakarri zituen Europatik, bereziki Frantziatik, Aragoi-

tik eta Gaztelatik. Euskal Herritik ere abeslari batzuk bildu zituen: Bertran Lakarra, Johaniko Latsaga, Landibarreko Johaniko, Abartzuzako Gartzea... Erriberriko jauregiak egin zuen, Piarres Narbaitzen hitzetan, "Europako bilgune poetiko garrantzitsuen".

Frantziarekin baketu zen, haatik ongi ordainduz: Champagne eta Normandia lurraldeei betiko agur erran zien. Ordainez Nemourseko dukerria eskuratu zuen: ez zen ber heinekoa. Gaztelarekin adiskidetu zen, eta kidetza horri zinez atxikia egon zen bururaino. Sui berriaren hautatzerakoan hori duke kriterio eta irizpide nagusia.

Iruña hiriaren batasuna egin zuen hirur auzoen arteko harresiak ezabatuz eta denentzat alkate bakarra jarritz. Juduak eta musulmanak zaindu zituen, Nafarroako erregeen ohiko politika baikorra eskuzabalki areagotuz. Izurri beltzari aurre egin zion ahal oroz 1400-1401 eta 1412-1413 urteetan.

Haatik diru asko xahutu zuen bere "bastartak" aberastuz, eta geroan batzuk beren abantailaz baliatuko ziren erresuman bereizkerien, zatiketen eta gatazken pizteko.

Karlos III.a Erriberrin zendu zen 1425ean, eta Iruñeko katedralean hobiratu zuten Leonor emaztearekin.

## Zuria eta Joan senarra

Zuria zortzi haurridetarik hirugarrena zen, 1386an sortua. Bost ahizpa eta bi anaia zituen. Denak hein bat gazterik galdu zituen, eta beraz tronurako bakarra gelditu zen. Nafarroako Gortek, Erriberrin bildurik 1416ko urriaren 26an, erresumako prima edo premia baieztatu zuten.

1402an ezkondu zen Siziliako Martin Gaztea erregearekin, eta holaz uharre horretako erregina ezkontide bilakatu zen. Baina 1409an senarra zendu zitzaion oinordekorik utzi gabe, eta beren seme bakarra zortzi hilabetetan zendu zen. Haatik, Zuria Siziliako erregina izan zen zendu arte (1402-1441).

Nafar koroari segida baten segurtatzeko, 1419an bigarren ezkontzaz esposatu zen Aragoiko Joan II.a printzearekin, Aragoiko errege Alfontso V.a gogo handikoaren anaia gazteagoarekin. Aitak bere aliantza berriaren ildotik hautatu zuen zinez gaztelaua zelako sortzez, hezkuntzaz, bihotzez, kulturaz eta ondasunez, suhigai horrek interes handiak baitzuten Gaztelan.

“Aragoiko” titulu horrek ez gaitu engainatu behar. Joanen aita, Fernando Trastamarakoa, Gaztelako erregearen bigarren semea, Aragoiko errege izendatu zuten hango Gorteen 1412an, beren subiranoa haurrik gabe zendu ondoren. Fernando I.a hori hil zen 1416an eta segida hartu zion Alfontso seme gehienak, beraz Joanen anaia handiak. Aragoi, Sizilia eta Sardiniako errege, penintsulako gatazkei bizkarra emanez, Mediterraneoa inperio baten sortzera saiatu zen: Napoli 1422an harturik, gortea hor jarri zuen, artea eta kultura bertan zainduz.

Ezkontza politikoa izan zen Zuria eta Joanena, bi aldeetarik, iduriz bakea indartzen zuena hirur erresumaren artean. Zuria zinez ederra zen, baina 34 urte zituen; senargaiak, ordea, 22. Gazte gogorra zen, anbizioz jana. Zuriak asko maitatu zuen. Besteak agian gutiago, segurki gaizkiago, baina nork daki: berak hamazapi urte zituela, Sizilian lehentze ikusi zuenean, andere alargun horren distiraz liluraturik egon zen. Baina bestalde Zuria jende ona zen orokorki, eta ez politikoa. Boteredun batentzat ahuleziak ziren eskualde horiez ongi baliatu zen Joan berekoi eta ezin aseak nahi zuenaren egiteko, laster ikusiko dugun bezala.

Iruñeko katedralean ezkondu ziren 1420ko uztailaren 10ean. Kontratuaren arabera, seme gehienari joan zitzaizkion, batetik, Nafarroako Erresuma, eta, bestetik, aitaren errenta eta jaurerriak. Premu hori lehen urtea bukatu aitzin Nafarroara ekarri behar zen, herriko ohituren arabera hezkuntza jaso zezan.

Haatik, hitzarmenean hutsune bat agerian zegoen: ez zuen aipatzen Joan alargun gertatuz geroz Nafarroatik eta Nemoursetik joan behar zukeenik, bi lurralde horiek Karlos III.a erregeak ordenuz izendaturiko oinordekoari utziz. Eta Joan hutsune horretaz ongi baliatu zen Zuria zendu ondoren.

Mementoko, ezkonberriak Gaztelara joan ziren bizitzera. Joanek hango aferetan sudurra sartu zuen berehala. Zuria Peñafelko gaztelu ospetsu baina hotzean zegoen, bere usaietarik urrun. Alegeratzeko, aita igorri zion Urtsua soinularia (Arizkungoa ote?). Ondoko urtean, 1421eko maiatzaren 29an, Zuriak Karlos edo Xarles semea izan zuen, Vianako printzea izan beharra.

Ondoko udaberrian ama-semeak Erriberrira itzuli ziren, eta 1422ko ekainaren 11n Gorteen Karlos txikia Zuriaren oinordeko baieztatu zuten, baita 1423ko urtarrilaren 20an Vianako printze izendatu ere, aitaitak desira zuen bezala. Titulu berri hori, Karlos III.a aitaita erregeak sortua, Frantziako “Dauphin” delakoaren baliokidea zen, eta erregegaiari zegokion.

Dena makurtu zuen Joan II.a aitaren anbizioak. Gogo guztia Gaztelan zuen, baina ez batere Karlos III.aren ikuspegi baketsutik. Gaztelako errege ahula ikusmiran zuen, bere bidean oztupo. Haatik, buru egin zion Alvaro de Luna erresumako kondestable fidel eta kementsuak. Karlos III.a lehen patas-

ken lasaitzera saiatu zen, baina debaldetan. Sasibaketze baten ondotik, egiazko gerla hasi zen bi etsaien artean.

Laster nekez ari zen Joan eta, Zuriari baimenik eskatu gabe, horren bitxiak eta zilarrezko baxerak saldu zituen gerlako gastuen ordaintzeko. Gainera, maileru astunak egin zituen, prestatzaileei Nafarroako elizetako argimutil eta gurutze baliosenak bermetzat utziz.

Erregearen suhi ñapurraren gerla pribatuek aurrez aurre jarri zituzten, batetik, Nafarroa bere interesen eta nahiaren despit, eta, bestetik, Gaztelako Erresumak aitzineko mendeetan hartuak zizkion euskal lurraldeetako jaunak beren soldaduekin. Adibidez, Lazkaoko jaunak Ameskoa mehatxatu zuen, eta Nafarroak Guardia galdu zuen. Gaztelak Araba bereganatu zuen, eta gaur Ebroz honaindiko Errioxa hori eskolari esker berriz euskalduntzen ari zaigu, bisean biseko nafar partean euskara kasik debeku delarik. Behin bederen gaitzetik on bat etorri zaigu!

Gorteak Joan lagundu beharrean gertatu ziren: I429an eta I431n 80.000 florin eman zizkioten, baita I434an 44.500 libera sokorri bila joateko Siziliara: Aragoiko koroaren meneko den uharte horretara joana zen Alfontso I.a erregea, Joanen anaia gehiena, eta Joanez penintsulara erakarri nahi izan zuen; debaldetan.

Aragoiko eta Nafarroako erregeak Joanen txangoaz baliatu ziren Gaztelako erregearengatik erdiesteko Joanez egin zuen tregoa luza zezan.

Bitartean, Karlos III.a bakezalea zendu zen I425ean, eta Zuria erregina karguan sartu. Koroa Iruñeko katedralean jaso zuen ospe handitan I429ko maiatzaren I8an. Hiru Estatuek zin egiten zioten, eta Nafarroako Erresumaren jabe bakar ezagutu zuten. Joan II.a errege ezkontide izendatu zuten, ñabardura ongi markatuz: Zuria da zinezko subiranoa.

Jose Maria Lacarra historiagilearen arabera, Zuria Erriberriko jauregian bizi zen bere debozioei emana, erikor eta gaixoti, medikuz inguratua: maiz musulman edo juduak ziren, eta bere debozioaz kutsatzera lehiatzen ere zen. Senarrak kanpoan egiten zituen egonaldia luzeetan: “ella se encierra en una devoción exaltada y mística, multiplicando sus actos de piedad. Funda capellanías, ermitas y cofradías. (...) Especial devoción mostró por la Virgen del Pilar, a donde hizo una peregrinación en I433...” (*Historia política del Reino de Navarra. Desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, Vol. 3. Pamplona, Aranzadi, I973). Beraz, iduri luke fededun gartsu eta mistikoa izateaz gain, Zuria depresiotik hurbil bizi zela, non ez zegoen erdiz erdi horretan murgildua. Holako senarrarekin, harrigarri ote zaigu emaztea zainetarik gaixotu ledin?



Zuria Segoviatik hurbil zendu zen, Santa María la Real de Nievan, 1441eko apiril lehenean; gorputza Uxuera eramatea eskatu zuen, baina haren azken nahia ez zuten bete. Bere ordenuan Vianako printzea Nafarroako Erresuman eta Nemourseko dukerrian oinordeko orokor baieztatu zuen, baina zoritxarrez emendio nahasi honekin: “bizkitartean amultsuki otoizten dut, aita erregeari zor zaion ohoreagatik, titulu horiek ez ditzan hartu horren baimenik eta benedikapenik gabe”. Joan ongi baliatu zen ñabardura horrez.

Berantago, 1453an, Zaragozako presondegitik, Vianak bere ordenu olografoan dio ama erreginak, hiltzerakoan, Hiru Estatuei idatzi zuela bera zendu baiko printzea “errege eta jaun gehien” altxa zezaten, baina Joan aitak idazki hori urrarazi zuela ez publikatzera uzteko. Nola jakin?

Alargundu ondoren, Joane bere buru gainean ezarri zuen Vianak hartu behar zukeen koroa. Gorteak isilik, ohiz kanpo. Beldurrez ote? Baliteke. Joan izigarri gogorra zen, gogotsua, tematsua, borondate handikoa; ez zuen duda-mudarik onartzen, are gutiago trabarik, eta bururaino joaten zen, oztopo guztiak baztertuz, gaingiduz edo lehertuz.

Joanek eta Zuriak lau haur ukan zituzten:

Karlos edo Xarles (1421-1461),  
Joana (1423-1425),  
Zuria II.a (1424-1464) eta,  
Leonor I.a (1426-1479).

Lehen ezkontzatik Zuriak seme bat ukan zuen 1406ko abenduan, baina laster hil zitzaion, zortzi hilabete zituelarik, 1407ko agorrilean.

## Joan I.a eta Joana bigarren emaztea

Aragoiko Fernando I.a errege zenaren bigarren semea, Alfontso V.a errege berriaren anaia gazteagoa, 1398ko ekainaren 29an sortu zen Medina del Campo, Segoviako eskualdean, Joan II.a erregea 1479ko urtarrilaren 19an zendu zen Bartzelonan. Haren gorpua Pobleteko abadian hobiratua dago.

Zuria I.arekin ezkondua 1420an, Nafarroako errege ezkontide izana 1425etik 1441era, hor alargundu ondoren koroaren jabe lapurra hil arteraino, hots 1479raino, anaia gehiena 1458an zendurik, haren ondotik Aragoiko errege date 1458tik 1479ra. Ber denboran Valentzia, Mallorca, Sardinia eta

Siziliako errege zen; gainera, Bartzelona, Besalu, Pallars Jussà, Urgell, Zerdania eta Rosselloko konde, hots Kataluniako jaun gehien eta subirano.

Baina katalanekin IO urteko gerla ukan zuen I462tik I472ra. Viana semea Bartzelonara erbesteratu zuen, bere ustez opari ustel bat eginez: Katalunia bihurriaren kudeantza. Baina katalanek printze gaixoa zinez maitatu zuten, eta haren heriotza susmagarritzat ikusiz, katalan instituzioak Joanen aurka jai-ki ziren. Nagusigoa kendu zioten eta beste babeslerik bilatu zuten. Holaz, Kataluniako agintea behin baino gehiagotan eskuz aldatu zen: I462-I463an Gaztelako Henrike IV.ak ukan zuen, I463tik I466ra Coimbrako Pedrok, I466tik I472ra René d'Anjouk. Azkenean, Joanek partida irabazi zuen Gaztelako erregearen laguntzarekin. Horrekin aliatu zen, Fernando II.a semea, Errege Katolikoa izanen zena, Gaztelako Isabel kusinarekin ezkonaraziz.

Nafarroan ere gerla zibila ukan zuen, hor zuzenean bere seme Vianako printzearekin, ondoko zatian argituko dugunez. Joan II.ari onartzen diodan urrats baikor bakarra da I449an Frantziako lur-armadak Zuberoa konkistatzean, berak Mauleko gaztelu zaharraren salbatzeko egin zuen entsegua, gazteluzain zegoelarik Luis de Beaumont, Leringo jaun kondea, Bereterretx erail zukeen. Nafarroako errege lapurra sei mila gizonekin etorri zitzaigun, baina frantsesak hamar mila ziren, eta, gainera, jenerala Gaston IV.a Foixkoa zuten, Bearnoko bizkondea, Frantziako erregearen ordezkaria Guiena/Akitanian, Joanen suhia. Joan suhiaren biltzera saiatu zen, baina horrek erantzun zion bere subiranoari zin egina ziola, eta hitzeman bete behar zuela. Beraz, Joan Iruñera itzuli zen bere armadarekin, baina Mauleko gazteluaren alde saiatu zen bederen. Laster Beaumontek ber bidea hartu zuen, Zuberoa Gastoni utziz. Bearnaren inposatzen hasi zen Maulen. Haatik, Luis XI.a erregeak Zuberoa Bearnori kendu zion I512an eta Frantziako Erresuman sartu.

Hemen azpimarratu beharra dago Mauleko gaztelu zahar horrek Nafarroako erregeekin eduki duen harreman berezia: gazteluarengatik Zuberoako bizkondeek zin egiten zieten, baita zerga bat isurtzen migaz eta izokinez. Ordainez zuberotarrak ardoz eta gariz hornitzen ahal ziren Nafarroan. Bizkonde kargua I307an desagerturik, Oier Maulekoa Nafarroa Garaian aterpetuz, Zuberoako zinegotziek zinaren usaia berritu zuten, I327an bederen. Nondik dator? Agian Zuberoako bizkonderriaren etorkitik? I023an sortu zen, Lapurdikoa bezala, Baskoniako printzerriaren baitan, Antso Handia Iruñeko errege zelarik, Baskoniako azken printzearen askazia eta horren babeslea. Ondoko mende hasieran, III2an, Alfontso Borrokalaria harrizko gaztelua eraiki zuen aitzi-netik zurezkoa omen zegoen lekuan, eta, urrunago joanez, Protohistoriako az-

tarnarik ere bazegoen tokian. Hortik, ene ustez, Mauleren izena: Mairüle, zubereraz /Maüle/ ahoskatzen dena; Altxaiko Zuhure oihanean badago ber izen horretako gune protohistoriko bat, hots, mairuek utziriko aztarna bat. Maületik Maulera urrats erdi bat, errexeta, Sohuta / Sohütaren kasuak beste aldera egiten duguna, Sorhoetaz ahantzirik: Basabürüan Sohuta, Pettarrean Sohüta. . .

Dena dela, Joan II.a Nafarroako errege lapurra berriz ezkondu zen 1447an. Bigarren emaztea, Joana Enriquez, Gaztelako almirantearen alaba, Joanek bere idurikoa du nortasun gogorrez eta helburu goraz. Biek gaitzeko bikote indartsua egin zuten. 1452an seme bat izan zuten, denborarekin Fernando II.a Katolikoa izango dena. Nafarroa konkistatu zuen 1512an eta Gaztelari lotu 1515ean. Sorterria Xabiartik hurbil zuen, Aragoiko Sause, laster Sos del Rey Católico. Hortik nafar birao edo sakre ezaguna: *Me cago en Sos*, (*mekauensos*) eta ez *en Dios* gaur usu entzuten dena edonon. Joanek eta Joanak eginahala egin zuten seme horren alde, lehen ezkontzako haurrak erregetzatik baztertuz, baita lortu ere.

## Karlos IV.a, Vianako printzea

Joan eta Zuriaren haur gehiena eta seme bakarra, 1421ean Gaztelako Peñafiel gazteluan sortua, Erriberriko jauregian hazia, Vianako printzea eta legez Nafarroako erregea Karlos IV.a izenarekin, Bartzelonan zendu zen 1461ean, eta Kataluniako Pobleteko abadian hobiratu zuten.

Erriberrin hezkuntza sakon eta zabala jaso zuen. Horretan aitaita Karlos III.a Nobleak ezin hobeki zaindu zuen, eta bilobarentzat Vianako printzerria asmatu. Haurra Nafarroako erregegaitzat ekarri zuten 1422ko ekainaren 1 In eta lehenbiziko urtea doi-doi bete zuen; ondoko urtean Vianako printze izen-datu zuten. Aitzinetik, 1420an, aita-amen ezkontzako hitzarmenean argi geratu zen Zuria I.a zendu ondoren, biek ukanen zuten semeak amaren segida hartuko zuela Nafarroako tronuan.

Vianako printzea gizon ederra eta gozoa omen zen bai gorpuzkeraz, hein bat luxea, bai begitartez, larru zuria, ilea gaztaina kolore; denekin kortes eta harrera onekoa, eskuzabala ere bai.

Ikusi dugu hezkuntza on eta zabala jaso zuela, bereziki aitaxiri esker. Arteak maite zituen, musika, pintura eta beste, halaber literatura, poesia, filosofia. Berak ongi marrazten zuen.

Franko poliglota zen: frantsesez bazekien, Napolin eginiko egonaldian gutun batzuk idatzi zituen italieraz eta katalanez, han latin eta grekozko klasiakoak ezagutu zituen, latina menderatuz gaztelaniazko itzulpenak egiteraino; haatik, grekoz ikasi gabe. Euskaraz guti edo aski bazekiena??? Ezin erran, baina baliteke, ez litzateke harrigarri *Lingua Vasconum* hori populuak mintzo zuelarik Erriberrin ere, eta euskal kantariak jauregian ongi hartuak zirelarik, Karlos III. aren aipatzean ikusi dugun bezala. Bestalde, Napolin eta Sizilian Pizkundeko lehen arnasak hartu zituen, irekidura handia bilduz eta bere inguruan zabalduz.

Gaitzeko liburutegia bildu zuen, parte on bat frantsesez eta latinez, gaztelaniaz ere bai, prefosta. Filosofo zaharren irakurtzea maite zuen bereziki, eta bera idazlea izan zen sail horretan nagusiki, bukaeran ikusiko dugun bezala. Iberiar penintsulan humanismoaren aitzindarietako bat izan zen.

Aitaita Karlos III.a Nobleak bezala luxua maite zuen: jantzi ederrak, altzari baliosak, harribitxiak, apairu onak, jaiak eta dantzaldiak. Erriberriko jauregian aberaski bizi zen, sehi andana gaitza bere zerbitzuko.

Ehiza eta zaldiak ere gustuko zituen, gerlarako ere trebatu zen garaiko jaun gazte bati zegokion bezala, baina jitez bakezalea zen, ez agresiboa, eta politikan ez zen nabarmendu, hau printzipioz armarik gabeko gerla baita, praktikan maiz armekikoa ere zoritxarrez. Hona Viana nola ikusten duen Carme Battle historialariak:

*Si bien se manifestó resuelto y valeroso en defensa de sus derechos en Navarra, generoso y desinteresado en Sicilia, en Cataluña resultó más sumiso y humilde, acaso por ballarse ya gravemente enfermo. Su personalidad no fue la de un político de talla, ni de un hombre de acción, sino la de un humanista que cultivó la música, la poesía y escribió una obra histórica, la Crónica de Navarra.*

Bere aldetik, José María Lacarrak hauxe dio:

*Sin ser un santo, era Carlos un hombre deseoso de paz, tímido y sentimental, impresionable, fácil de convencer por los que le rodeaban, pero con una fe absoluta en la justicia de su causa y en la razón que le asistía al defender sus derechos. Con una gran preocupacion ética y un elevado concepto del deber, la defensa de estos derechos había de chocar en su conciencia con los deberes de respeto y obediencia que como hijo tenía para con su padre.*

Ama erregina subiranoa zendu zitzaion I44Ieko maiatzean. Urte bat aurretik idatziriko ordenuan bere seme Karlos IV.a, Vianako printzea, Nafarroako tronuan bere ondokotzat baieztatu zuen. Haatik ohar hau gehitu zuen maluruski:

*Y aunque el dicho príncipe, nuestro caro y muy amado hijo, pueda, después de nuestra muerte, por causa de herencia y derecho reconocido, intitularse y nombrarse rey de Navarra y duque de Nemours, no obstante, por guardar el honor debido al señor rey su padre, le rogamos, con la mayor ternura que podemos, de no querer tomar estos títulos sin el consentimiento y la bendición del dicho señor padre.*

Joan II.a alargundu ondoren, ñabardura horretaz ongi baliatu zen: koroa bizi zeno atxiki zuen, eta semea bere ordezkari orokor izendatu zuen. Haatik aita hori Gaztelako gerla pribatuan murgildua zegoeno (I337-I445), Vianak Nafarroa kudeatu zuen errege izan balitz bezala. Baina gauzak aldatu ziren aita, gerla osoki galdurik, erresumara itzuli zenean, eta bereziki Joana Enríquez esposatu zuenean I447an. Orduan Vianaren aldeko beaumontarrak jaiki ziren, agaramontarrak ordea Joanen alde jarri.

Egoera gogortu zen I450ean, Joan Erriberriko jauregian plantatu zenean bere gortearekin, erreinuko kargu gorenetera bere gustuko jaun batzuk izendatuz, agaramontarrak nonbaitik ere, semeak beaumontarrei egin zizkien faboreak ezabatuz. Ber denboran Gaztelako lurreko armada Nafarroako mugara bildu zen, eta Viana Donostian aterpetu. Bi taldeen arteko liskar zenbaiten ondotik, aita-semeak konpondu ziren I45Iko maiatzean.

Bakeak ez zuen iraun: ber urteko agorrilean, gartzelauek eraso handi bat egin zuten eta Lizarra setiatu zuten; haatik Vianarekin aliantza bat hitzarturik, atzera egin zuten. Bitartean Joan Zaragozara joana zen laguntza bila, eta indarturik itzuli zen I45Iko urriaren 23an, Vianak Oibarko guduka galdu zuen eta presoner egina izan zen, Luis de Beaumont Leringo kondearekin batera. Zaragozan preso zegoelarik, aitarekin hitzarmen bat sinatu zuen I453ko maiatzean, Nafarroa elkarrekin gobernatzeko. Baina Viana berriz aliatu zen beaumontarrekin koroaz jabetzeko xedetan. Bitartean sortu zen Joanen bigarren semea, Joana Enríquezenganikoa (I45I?), Fernando II.a Katolikoa izan beharra.

I453ko abenduan Maria Aragoiko erreginari esker, *Concordia de Valladolid* delakoa sinatu zuten Aragoi, Gaztela eta Nafarroako erresumek, eta urte bateko bakea hitzartu zuten. I454ko tregoa hori burutu baiko, beaumontarrek Donibane Garazi eraso zuten I455eko martxo bukaeran, eta beste guduka bat gertatu zitzairen Torralban agaramontarren aurka. Okaztatua, Joanek erabaki ezkor bat hartu zuen abenduaren hiruan: Viana despremutu zuen, halaber horren aldeko Zuria II.a arreba, Leonor arreba gazteagoaren faboretan, hura Gaston IV.a Foixkoa, Bearnoko jaunarekin ezkondua. Beaumontarrek borrokan iraun zuten, baina agaramontarrek Foixko jaun horrekin aurre egin zieten.

Gaston Foixkoa Salbaterra Bearnotik abiatu zen I456ko ekainaren I5ean Nafarroa Beherearen erasora. Donapaleu ezin sartuz, Garrüzeko herria eta gaztelua indarka hartu zituen. Gero Donapaleu aurkitu zuen ateak irekirik eta biztanlez husturik. Hor segida prestatu zuen Nafarroa Garaia igoiteko. Irunberri setiatu zuen, baina ezin hartuz Espartza eraso zuen, laster Agoitz, eta gero Zangozan ostatu hartu zuen Joan II.aren meneko hirian. Iparraldera itzulirik, desmasiak egin zituen Armendaritzeko jaunaren etxean, Aiherrako Beltzuntzengan, Donamartiriko gazteluan. Azkenean, Donibane Garazi hartu zuen setio luze baten buruan, Joan erregea errematatzeraz jini. Baina beaumontarrek, –zuzenean lüküztarrek–, hiria berriz bildu zuten, baita Baxenabarreko parte handiena ere.

Gerla zibiletan orokorki beaumontarrek Nafarroa Garaia xehatu zuten, agaramontarrek, aldiz, Nafarroa Beherea. Hegoaldean Peralta etxea zuten zutabea.

I456 horretan, Ehun Urteetako Gerla burutu berrian (I453), Viana partida galdurik Frantziako errege Karlos VII.aren gana joan zen laguntza bila, baina debaldetan. Beraz, I457an Napolira alde egin zuen osaba Alfontso V.a Aragoiko erregearen gortera. Horrek bere anaia Joan II.a Vianaren aldera ez-tiarazi zuen, baina I458ko ekainean hil egin zen.

Orduan Viana Siziliara lekutu zen. Hango Parlamentuak Joan II.ari dei egin zion semearen eskubideak ezagutu zitzaizkion. Aitak ez zuen onartu, eta seme-ari manatu zion itzul zedin. Horrek manua bete zuen. I460ko urtarrilean “Concordia de Barcelona” delakoa sinatu zuten.

Aitak seme-ari barkatu zion eta Vianako printze titulua itzuli. Haatik printzeak ez zuen Nafarroan egon behar, ezta Sizilian ere.

Joanek semea Katalunia gatazkatsua kudeantzara zokoratu nahi zuen. I460ko martxo erditan biak Bartzelonan sartu ziren elkarrekin. Baina hor ere batasunak ez zuen iraun. Joanek, emazteak bulkaturik, Viana atxilotu zuen Lleidan I460ko abenduaren 2an. Erantzunez gerla zibila berpiztu zuen Nafarroan, Gaztelako armada bat Errioxan agertu eta Katalunia matxinatu (I460-I461): hor urte bat berantago hasi beharra zen Hamar Urteetako Gerla (I462-I472). Eskandalu handia piztu zuen Europa hurbileko gortetan. Aita Sainduak ere gutunez eskatu zion Joani semea libre utz zezan. Joan Zaragozatik Zangozara mugitu zen, eta I461eko ekainean Joana emaztea bidali zuen katalanekin “Capitulación de Vilafranca” delakoaren sinatzera.

Viana Bartzelonan ospe handitan hartua izan zen I461eko martxoaren 12an, “ez gizon bat bezala, baina sinbolo bat bezala”: despotismoaren aurkako erresistentziaren sinboloa zitzaien katalanei...

Vianak Bartzelonan hiru hilabetez bete zuen kargua ere zinezkoa baino sinbolikoagoa izan zen. Horren heriotzak lazgarriko zirrara piztu zuen Katalunian, eta bera santutzat hartu zuten.

Erran izan da Joana Enríquezek pozoiarazi zuela, baina horren proba izpirik ez dago. Aldiz autopsian ikusi zen Vianaren biririkak edo bular erraiak ustelduak zirela, bularreriak janak.

Bitartean, Nafarroako gerla zibilak zirauen. Beaumontarrak Viana bera baino vianatarrago ziren, eta batzuetan printzearen nahia gainditzen zuten. Adibidez, 1457ko martxoaren 16an errege izendatu zuten, baina gaztelauk ez zituzten bermatu, eta Vianak Napolitik Beaumontarrak erasiatu zituen aldarri horren egiteagatik.

## Vianaren familia, haurrak eta idazlanak

Inés de Cleveskin ezkondua 1439an, alargundu zen 1448an, eta ez zuen haurrik ukan. Gero ez zen berriz ezkondu. Aitak Gaztelako Isabelekin egitea galarazi zion, printzesa hori beste seme Fernando II.aren emaztegaitzat ikusi baitzuen. Portugalgo Katalina proposatu zion, debaldetan. Bitartean, 1451n, Leonor de Velascorekin ezkontzeko xedea ez zen burutu, eta ondotik andere hori serora egin zen.

Vianak maitaleak eduki zituen, jakinean bost ondozka. Ezagutuena María de Armendariz, Leonor arreba gazteenaren sehi bat: 30 urteetan printzeak ezkontza hitzeman zion seme bat ekartzen bazion, baina jin zitzaion haurra alaba izan zen, Ana (1451-1477), Luis de la Cerda y de la Vega, Medinaceliko dukearekin ezkondu zena.

Brianda de Vega noblea, Napolin ezagutua, hiltzeraino jarraiki zitzaion. Filipe semea ukan zuten, Granadako gerlan hilen zena (1456-1488).

Sizilian Cappa andere noblearekin ere seme bat ukan zuen, Juan Alfonso de Navarra (1454-1529), San Juan de la Peñako abade izanzen zena, baita Huescako apezpiku ere.

Guiomar de Sayas delako andere bat ere maitatu omen zuen.

Mallorcan Margarita Colom batekin seme ezezagun bat ukan zuen: Kristobal Colom, Mallorcako Unibertsitatean eginiko ikerketa baten arabera. Esploratzaile famatu hura ote? Gauden haiduru...

Vianaren idazlanak:

- *Crónica de los reyes de Navarra* idatzi zuen Oibarko gudukatik landa, Zaragozan preso zegoelarik.
- Aristotelesen *Etika* latinetik gaztelaniara itzuli zuen Napoliko egonaldian (1457-1458).
- *Epístola a los valientes letrados de España* delako Etikaren eta kristau fedearen arteko harmonia egin dedin eskatu zuen.
- Plutarkoren *De toda condición de la nobleza* latinetik gaztelaniara itzuli zuen.
- *Debates epistolares con Joan Rois de Corella*: jaun horrekin gutunezko harremanak izan zituen 1459ko agorriletik 1461eko ekainera, ideia orokorrak aipatuz, haietan maitasuna.

## Zuria II.a, alaba desprumutua

1422an sortua, Zuria I.aren eta Joanen hirugarren haur horrek une batez Nafarroako erregina izan behar zukeen Zuria II.a izenarekin, Viana zendu ondoren (1461), baina Joan aitak biak batean desprumutuak zituen 1445ean, Leonor haurride gazteagoaren faboretan.

1440an ezkondua Henrike IV.a Gaztela eta Leongo erregearekin, ezkontza 1453an hautsi zuten, senarrak ezin zuelako bete. Aitak Erriberriko jauregian atxiki zuen, boteretik bazter, preso bezala. 1462an Ortesera erbesteratu zuen, Leonorren eta Gaston IV.aren menpeko utziz. Bikoteak gogorki tratatu zuen, eta 1464 hil zen baldintza bitxietan. Pozoitua ote? Vianaren kasuan baino itxura gehiago baluke.

## Leonor I.a, erregina iragankorra

1427ko abuztuaren 27an Nafarroako prima izendatua “bere aldia” tronura igoiteko, Gaston Foixkoa Bearnoko bizkondearekin ezkondua 1442an, Leonorrek Nafarroako erregina izan behar zukeen Zuria II.a ahizpa zendu ondoren (1464), baina 15 urtez haiduru egon behar izan zuen, aita hil arte.



Alta, Leonorrek Joan beti bermatu zuen bere bi haurride nagusien tronutik baztertzeko jokoan, senar gosetiaren sostengu osoarekin. Aitak ez zion horregatik bidea erraztu, aitzitik, behar zen guztia egin zuen boteretik urrun atxikitzeko. Aurkari posible bat bezala tratatu zuen, alaba horri senarraren aurrean ere gogorki eta errespeturik gabe hitz eginez. Leonorren gaintetik Gaston biloba Vianako printze izendatu zuen, bere oinordeko bezala.

Beraz aita Joanek erregetza zuzenkontra beretzat atxiki zuen hil arte (1479). Hor Leonor 52 urteetan tronura igan zen azkenean... aste pare batez, berehala zendu baitzen! Zazpi urte hartan alargundua zen (1472). Hozaz Gaston IV.a, noizbehinka irakurri dudaren aitzia, ez zen sekula gertatu Nafarroako errege ezkontide.

## Subirano nafar-bearnesak

Nafarroako Leonor I.aren eta Bearnoko Gaston IV.a Foixkoaren ezkontzatik sortu zen nafar-bearnese subiranoen ariaren: Nafarroako errege-erregina izango dira Leonorren ondoko bezala, eta Bearnoko jaun edo andere subirano Gaston IV.aren ondoko bezala. Erresuma eta jaurreria ez ziren elkarrekin urtu, bakoitzak bere izate berezia atxiki zuen bere foru, biltzar eta legeekin: lokarri bakarra subiranoaren pertsona dute.

Bitasun hori argi eta klar ageri da Joanes Leizarragak Testamentu Berriaren atarian Joana III.a Albretekoari euskaraz eta frantsesez egiten dion sar-hitzean:

Gucizco Andre noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco  
Andre guehien &c denari...

*A très illustre Dame Ieanne d'Albret, Reine de Navarre, Dame souveraine de Béarn, &c...*

Bearnoko lurralde horrek aurkezpen bat merezi du, eremu gutikoa izanagatik (4.680 km<sup>2</sup>), leku ederra bete baitu historian. Euskararen eremuan zegoen duela bi mila urte, Zesarren Akitania osoa bezala. Egia simple horren aldarrikatzeak uzkur gaude gu, gaurko euskal idazleak, inperialistatzat ez agertzeagatik. Pierre Tucoo-Chala irakasleak ordea, bearnesa izanez, holako beldurrik ez du, eta bere jatorria deblauki agertzen du *Petite histoire du Béarn* liburuko 4. orrialdean:

*Les Romains englobèrent les Vénarni du piémont et les Iluronenses (Oloron) dans la cité des Tarbelles (Dax). Cette région, active dès la Préhistoire (tumuli du plateau de Ger), site d'Arudy), faisait alors partie de la zone de peuplement basque.*

*L'influence romaine fut surtout sensible dans le nord autour de Beneharnum (Lescar) et dans le Vic-Bilh (Lalouquette), où elle se traduit, sous le Bas-Empire, par l'implantation de villas qui diffusèrent la culture de la vigne. Par contre la montagne fut simplement traversée par la voie romaine du Somport conduisant à Saragosse. Dans ces conditions, si la toponymie d'origine basque fut effacée dans le piémont par l'utilisation d'une langue romane, une des sous-variétés dialectales du gascon, elle ne fit l'objet que d'une romanisation superficielle en montagne où elle subsiste encore.*

Euskara Bearno beherean galdu zen IX. eta X. mendeetan. Pentsu da Ossau eta Aspe ibar goretan XII. menderaino iraun zuela, eta Albert Constantin mediku euskaltzaleak (1873-1957) zioen Baretoskoan XV. mendean oraino bizi zela.

Bearnoko jaurerria izan beharra zen lurraldeak bi apezpikutegi ukan zituen V. mendetik: Beneharnum / Lescar / Laskorrekoa eta Iluro / Oloroekoa.

Bearnoko bizkonderrria IX. mendean sortu zen Gaskoiniako dukerrian, Leskarre hiriburua. Bikingoek Leskarre xehatu zuten, eta Bearnoko bizkondeek hiriburua Morlaasen jarri. XI. mendean Oloroeko partea ezkontzaz berenganatuz indartu ziren, XII.ean Gaskoiniatik urrundu, Aragoitik hurbildu Alfontso Borrokariarekin, arrakonkistaren hasieran parte hartuz, bereziki Zaragozako setioan (1119an), XIII.ean Aragoitik urrundu Mureteko gudukaren ondotik (1213), hor Frantziako erregearen armadak Aragoikoa garaitu baitzuen eta horren errege Petri II.a hil; XIV.ean, Ehun Urteetako gerla denboran, Frantziako eta Ingalaterrako erregeen arteko lehian ez zuen iraunkorki parte hartu, eta neutraltasun horri esker beregain jarri zen, jaurerri subirano bilakatu. Urrats handi hori zor dio Gaston III.a Febori.

Ortesen sortua 133In, Gaston III.a Foixkoa, Bearnoko X.a, Salbaterra aldeko Hôpital d'Orionen zendu zen 139In. Ehun Urteetako Gerla hartan, Frantziako erregearen alde hasi zen, baina bearnes jaunak beste aldetik zebiltzan, hizkuntzaz eta bizipidez Gaskoiniari lotuak baitzeuden: bisean bis zauzkaten "ingelesak" egiaz gaskoiak ziren eta, beraz, Febok 1347an Bearnoren independentzia aldarrikatu zuen. Horren alde 6.000 gizoneko armada iraunkor bat antolatu zuen, 48 oreneko epean biltzen ahal zena, eta gotorlekuak eraiki zituen, bereziki Montaner eta Paueko gazteluak: azken hau denborarekin errege jauregi bilakatu zen. Febo Bigorraz jabetu zen, Bearno eta Foixen artean zubia jarritz. Ber denboran Bearno lurralde andana baten arteko merkataritzan aberastu zen, eta dohain horiei esker Pirinio aldeko indar nagusia bilakatu, eskualde batzuk beretuz gainera ordokian, bereziki Landetan.

Karlos II.a Nafarrokoaren arreba gazteagoa zen Agnès esposatu zuen 1349an, bai eta despeditu 1362an, funtsik gabe antza denez. Karlosek biziki

gaizki hartu zuen, eta 1380an koinata ohiaren pozoiaraztera entseatu zen Tucco-Chala irakasleak bere *Petite Histoire du Béarn* liburuko 33. orrialdean dioskunez. Bearnoko jaun batzuen haserreaz baliatu zen, buru zutela Feboren premua, bizkondeak boteretik osoki baztertu zituelako. Ekintzak huts egin zuen, konplot egile pare bat Nafarroan aterpetu zen, besteek bertan bizia galdu zuten, eta Gaston premua Moncade dorreko gartzelan preso gertatu zen; laster hil zen hor, beharbada aitaren eskutik. Zilo beltz bat Febo handiaren bizitzan. Bestalde gaskoi hizkuntzan idazlea izan zen, poeta bereziki. Ihizketaz liburu bat utzi du, beste bat deboziozkoa, seme galdua gogoan.

1242an Gaston Moncade bizkondeak hiriburua Morlaastik Ortesera ekarri zuen. 1464an Pauera eraman zuen Gaston IV.a Foixkoa Bearnoko bizkonde famatuak, eta Nafarroako hiriburua ere hor kokatu zuen 1512an, Katalina erreginak eta Albret errege ezkontideak Iruñea utzirik Gaztelako armen aurrean.

## Frantzisko Febo, errege gaztea

Haatik ondorengoa ez zen simple izan. Gaston V.a, Leonorren semea, ondoko erregea izan beharra, 1469an zendu zen, bere aitaita eta aita-amak baino lehen. Horren semea, beraz Leonorren arraseme Frantzisko Febo, Leonorren ondotik errege izan zen 1479an, hamabi urteetan, eta 1483an zendu zen, beraz hamaseietan. 1467an sortu zen Foixko konderrian, gaur Ariègeko departamenduan dagoen Mazères herrian.

Pauetik etorria, koroa Iruñean jaso zuen 1481eko azaroaren 21ean. Nafarrek festa egin zioten, agaramontarrek eta beaumontarrek beren artean sinatu berri zuten bakea errege gazteari esker iraunkorturen zelako esperantzan. Tuteran ere arras ongi hartu zuten abenduaren 24an. 1482ko urtarrilaren 31n Erriberrin zegoen, Gorteen biltzarrean parte hartu ondoren. Baina laster Pauera itzuli zen, berriz han bizitzeko, hirurogeita hamar eguneko egonaldi laburregia Nafarroan igaranik. Zeren presa hori? Ganorazko arrazoia osasunaren zaintzeko grina litzateke, zeren mutikoa birika edo bular erraietarik ahul baitzegoen, eta Iruñeko klima hein bat bortitza baino egokiago zitzaion Paueko zeru ezitia.

Ez zen zahartu, ezta gehitu ere: lau urtetako erregealdi laburraren ondotik, zendu zen 1483ko urtarrilaren 30ean, hamasei urteetan, itxura guztien arabera bularrerria edo hetikagatik, Vianako printzea bezala. Berriz pozoia susmatuko da, baina funts handirik gabe.

Pena handia utzi zuen mutiko eder, goxo, artista horrek. Musikaria zen, bereziki txistularia, eta doluminekin batera, mutil eguzkitsuaren oroitzapen distirantak iraun du Bearnon, agian Nafarroan ere, Febo izengoitiarekin.

Hiltzeko bezperan, ordenuz Katalina arreba gazteagoa bere ondoko izendatu zuen, eta bere gorputza Leskarreko katedralean ehortzi zezaten manatu. Bi puntu horiek bete dira.

## Katalina eta Joan Albret edo Labrit

I468an sortu zen Katalina, Frantzisko Feboren arreba gazteagoa. Anaia zenuaren ondotik, Nafarroako Erresumari jarraipena eman zion (I483-I517) Joan Albret senarrarekin, hau Ségur herrian sortua I469an. Leskarreko katedral ederrean ezkonduak ospe handitan I484an, azkenean koroatu zituzten I494ko urtarrilaren I2an Iruñeko katedralean, Nafarroako azken erregeak ditugu ohore hori ukan zutenak. Zeremoniaren ondotik, jai handiak ospatu zituzten. Gaitzeko boza hartu zuen hiriburuko jendeak bake une horretan, eta hor kantatu ziren kopletarik bat dakarkigu Narbaitzek bere liburuko 454. orrialdean:

Labrit eta Errege / Aita-Seme dirade  
Kondestable Jauna / Ar bizate Anaie!

Delako kondestable jauna Luis de Beaumont zen, Leringo jaun konde famatua. Bearnotik etorriak, erregina eta ezkontidea Iruñean plantatu ziren nafar gorteen nahiari men eginez. Fernando Katolikoaren eta beaumontarren eraso jasan zuten I512ko udan eta, Iruñea utzirik, Bearnora ihes egin behar izan zuten, lehen ministroa duten Jatsu eta Xabierko Johan, Frantses edo Frantzisko saildugaiaren aitarekin.

I512ko larrazkenean erresumaren askatzera saiaturiko dira frantsesen laguntzarekin, berekin zutela Frantziako errege izan beharrazen François d'Angoulême printze gaztea, eta gudalburu La Pallice famatua, Ravenneko guduka irabazi berri zuena. Haatik Joanek denbora gehiegi galdu zuen Monjolosen, eta gero Auritzen. Bitarte horretan etsaiak Iruñea defentsan jarri zuen. Hiriburua ezin hartuz erasoan, gutiz huts egin ondoren, aliatuek Gaztelako gudaloste bat Erreniegara heltzen ikustean, gainera lehen elurrak mugarako bortuetan, atzera egin behar izan zuten Belateko lepo edo mendatetik, hor hamabi kanoi galduz:

Fernando Katolikoari esker, horien itxura Gipuzkoako erredolan sartu zen eta hor egonen berriki arte. Agerian eman zuen nola Gaztelako erregeak Bas-kongadetako euskaldunez baliatzen ziren, bereziki gipuzkoarrez, beren erre-suma ohiaren aurka, mugatik hurbilenak zirelako ere. Urrunago bilatu gabe, 1512ko erasoan parte handia hartu berri zuten.

Fernando erregea, Nafarroako Erresuma 1515eko uztailean Gaztelari loturik, Iparraldeko zatia barne, 1516ko urtarrilaren 25ean zendu zen bitxiki. Isabel emaztea 1504an galdurik, bigarren ezkontza bat egin zuen Germaine Foixkoarekin 1505ean. Haur bat elkarrekin ukan nahi izan omen zuten, eta helburu horren segurtatzeko, emazteak senarrari denbora hartako Viagra gisako bat eman omen zion, iduriz indartsuegia...

Ustekabeko gertakari horrez baliatu ziren Nafarroako subiranoak bigarren entsegu baten egiteko martxoan. Haatik oraikoan Frantzisko I.ak, berriki erregeturik, ez zituen lagundu, Italiako gerletan sartua baitzegoen leporaino.

Iparraldetik gudarigaiak ongi mobilizatu ziren Nafarroa Beherean eta Bearnon, —3.000 bearnes Salbateran bildurik— baita Katalinaren bi etxalde horietarik at ere: Zuberoan jauntxo andana bat jaiki zen, jende gehiago, prefosta, Landetarik eta Garona beheko ibarretik, bereziki Agen aldetik, hots Albret ariaren meneko zeden lurralde zabaletarik. Zuberotarren artean aipu dira Ürrütigoiti, Sorhoeta, Oihenart, Athagi (gaur Altzai Zaroa), Lakarri, Arbide, Olhasarri, St-Jayme, Atharratzeko jaunak. Baina zenbat holako behar litzateke Gaztelako indar erraldoien atzera botatzeko?

Nafarrak eta bearnesak erasora joan ziren, Joan Albretekoa buru, baina denbora gehiegi galdu zuten Donibane Garaziko gaztelua ezin hartuz. Bitartean etsaiak muga giltzatu zuen Ibañetan eta Erronkarin, eta zoritxarrez aroak ez zituen gure legitimistak lagundu: Aste Saindu lazgarri hotzak mendian harapatu zituen, elurrean ezin mugituz, eta porrot osoa jasan behar izan zuten, bereziki Erronkarin. Hor Villalba koronelaren gizonak Petri II.a (Nafarroako marexala) presoner eginik, Simancaseko presondegira eraman zuten, eta han hil zen bitxiki.

Joan Albretekoa ere laster hil zen, Donibane Garaziko setioa utzi ondoren, 1516. urte horretako maiatzaren 17an Moneinen, eta Katalina erregina 1517ko otsailaren 12an Mont de Marsanen. Leskarreko katedralean hobiratu zituzten Frantzisko I.aren ondoan.

## Fernando Katolikoa, Nafarroako errege?

Espainiako eta Baskongadetako historiografia ofizialean, Fernando Katolikoa Nafarroako errege izan zen 1512tik 1515era: *de facto* bai, konkistaren ondorioz. Baina *de jure*? Ez dut uste, eta hona zeren.

1513ko martxoaren 23an, Gaztelako erregeordeak Nafarroako Gortek Iruñean bildu zituela eta hor Fernando Katolikoa Nafarroako errege izendatu zutela? Bai, egia da. Haatik Gorteen biltzeko eskumena Gaztelako kargudun horrek nondik ote zuen? Fernandok 1512an eginiko konkistatik. Normalki Katalina Nafarroako erreginari zegokion Gorteen biltzea. Beraz ez zen legezko akta bat izan, ilegala baizik.

Gorte horiek, agaramontar alderdiaren parte hartzerik gabe, egiazko Gortek izan ote ziren? Erantzuna galderan dago. Libreki eztabaidatu eta erabaki ahal ukan zuten ote, konkistatzailearen armez inguratutik? Ez arren ametsik egin!

Orduko zuzenbidez, Nafarroako subirano legala Katalina erregina zen, bere amona Leonor erreginaren ondokoa, Iruñeko katedralean ofizialki eta publikoki koroatua Gorte oso eta libreen aurrean 1494ko urtarrilaren 12an, Joan Albret errege ezkontidearekin batera. Badakigu 1512an Fernandoren armen puntan Bearnora ihes egin behar ukan zutela. Nork, noiz, non eta nola despremutu zuen? Horren aktarik ba al dago nonbait?

Baina zertako hainbeste argudio? Konkistak berak legez kanpo jarri zuen Fernando Katolikoak konkistari esker Nafarroan legeztatu zuen agintea. Fernandoren bortxaketa bat izan zen, bortxatzaileak bortxaka legeztatu zuena, ezkontza libretzat azalduz.

## Henrike II.a Albretekoa eta Margarita

Katalina eta Joan zendurik, Katalinaren koroa Henrike Albret semeari zokion (1517-1555). Henrike 1503an Zangozan sortua. 1527an esposatu zen Margarita Angulemakoarekin, Frantzisko I.a erregearen haurride gehiena.

Henrikek Nafarroaren berreskuratzeko hirugarren saio bat egin zuen 1521eko maiatzean. Aldi honetan Frantziako errege armadaren laguntza gotorra lortu zuen. Nafar, bernes eta frantsesen lur-armada Gaztelako herrien matxinadaz baliatu zen Nafarroa osoaren eskuratzeko, Iruñea barne, hor Gaztelako erregearen

zerbitzuko zen Iñigo Loiolakoa handizki zaurituz. Frantzisko Xabierkoaren bi anaia aurkarietan zituen, Nafarroako erregearen armadan. Baina laster, komuneroak garaiturik, Gaztelako errege armada Iruñera hurbildu zen, eta hor Noaingo guduka irabazi zuen; 5.000 gizon erail zituzten. Horien artean izen bat deigarria guretzat: Karlos Mauleongoa, 1307an Nafarroara joan zen Oier Mauleongoa, azken bizkonde zuberotarraren ondoko bat.

Errege legitimoaren aldekoek beste bi balentria egin zituzten konkistaren aurka: lehena, Amaiurko gaztelua hamahiru hilabetez atxikiz 1522ko uztailaren 19raino, Xabierreko bi anaiak barne, baita hor ere Mauleon bat; bigarrena, Hondarribia hartuz eta hau ere atxikiz 1521etik 1524ra Lapurdiko milizien eta nagusiki Frantziako errege armadaren laguntza gotorrarekin. Baina biak galdu, Hondarribiakoa hurbileko gipuzkoarren eraginez, bereziki San Martzialen lortu zuten garaipenaz. Hortik Hondarribia eta Irungo alardeak: hartzaileek jakin gabea, manifestaldi militar horiek espainolista eta antifrantses dira jatorriz eta oinarritz. Frantses horiekin zabiltzan nafar, bearnes eta lapurtarrak ahantzirik utzi zituzten, baita zertako hor zeuden ere: Nafarroaren beregaintasuna berreskuratu nahian Espainiako monarkiaren aztaparretik.

Nafarroa Gaztelaren menpeko egon zen, azken batean Espainiaren azpiko, beste hiru lurralde historikoak 1200. urte ingurutik zeuden bezala. Nafarroa Gaztelaren menpeko: ez osorik, zati bat laster libratu baitzen konkistatik, Iparraldeko malda, Baxenabarre edo Nafarroa Beherea bilakatu.

1523. urtean, Karlos V.aren lur-armada batek, Orangeko printzea buru, razzia egin zuen Lapurdi, Bearn eta Zuberoan gaindi, Oloroe eta Maule barne, eta ber bidetik itzuli zen eta kalte larriak egin zituen, bereziki Lapurdin. Baina hirien aurrean nekez ari izan zen, eta, nagusiki, Baiona ezin izan zuen hartu. Beraz, 1530. urtean, ikusirik Nafarroa Beherea nekez zaindu zezakeela muga “naturalik” ezean, “Espainien” bazterra bortsu hegian finkatu zuen, haatik Iparraldetik dagoen Luzaide atxiki zuen.

Bitartean, 1523. urtean, Henrike II.a erregeak Nafarroako Estatuak Donapaleuko elizan bildurik, Nafarroako Erresuma Baxenabarren erroto zuen bere foru, lege eta biltzarrekin; gainera, Monetaren Etxea Donapaleun eraiki zuen. Bera Paueko jauregian egoten zen, eta Bearnoko jauna izan zen ber denboran. Nafarroa Garaia bere erresumako parte zitzaion, eta horren oinordekoek ikuspegi hori atxiki zuten Pirinioetako Hitzarmeneraino (1659).

Gisa horrez Nafarroako errege horiek Hegoaldeko nafarrak beren meneko herritartzat hartu zituzten Iparraldean. Adibidez, Axular apezka, Urdazubikoa,

beraz Nafarroa Garaikoa, Sarako erretore izan zena, lapurtar baten kaltetan, Nafarroako Henrike III.a edo Frantziako Henrike IV.a erregearen erabakiz. Halaber, Gaztelako erregeek baxenabartarrak nafar bezala onartu zituzten Tuteran, eta zuberotar batzuk errextasun horrez baliatuko dira, beren buruak “manex” agertuz.

Henrike II.a Albretekoa 1555ean zendu zen Hagetmau herrian. 1549an alargundua, Leskarreko katedralean hilobiratua dago Margaritaren ondoan.

## Margarita Nafarroakoa

Margaritak aipamen berezia merezi du, bere nortasun apartaz eta kulturako lanaz, errege baten emaztea baino askoz ere gehiago izan baitzen Margarita Angulemakoa, Frantzisko I.aren arreba gehiena (1492-1549). Anguleman sortua, Odos Bigorren zendua. Alençoneko dukearen alarguna, Nafarroako erregina ezkontide bilakatu zen eta Henrike II.arekin esposatu zen 1527an; Margarita Nafarroakoa deitu zuten. Kulturan murgildu zen, bereziki Sorbonako teologoen suaz mehatxatzen zituzten idazleak zainduz, lehenik Frantziako gortetik Rabelais eta Bonaventure des Périers, gero Neraceko gortean Calvin teologoa, Marot poeta eta beste batzuk. Lehenik bere anaiak lan horretan babesa ekarri zion, baina 1534an *affaire des placards* delakoaren ondotik, bere tolerantziari bazter bat jarri zion, eta lehenbiziko protestateen buruak zigortu zituen bortizki. Orduan Margarita Neracen plantatu zen, bere gortea han jarritz eta bere babesa zuzenean ekarriz bereziki Calvin eta Mellin de Saint-Gelais poetari: azken honek Petrarka imitatuz, Italiako poesiari Frantziako atea ireki zion, eta uste da berari zor zaiola frantsesezko lehen sonetoa.

Margarita katoliko fidel egon zen bururaino. Eliza katolikoan erreforma baten bulkatzera saiatu zen 1521etik 1524ra Meauxeko apezpikuarekin, Le-fevre d'Étaples teologoa lagun. Testamentu Berria latinetik frantsesera itzuli zuen, eta jendea horren irakurtzera deitu zuten, hierarkiaren despit. Beraz Sorbonako teologoen heretikotzat jo zuten. Anaia erregeari esker, haien aztaparretik salbatu zuen Margaritak. Haatik erreforma katolikoa hor gelditu zen, eta bestea laster etorri zen, eliza urratuz.

Ber denboran Margarita frantsesez idazle jori eta oparora genuen, polifazetikoa, prosan ala neurtitzez, literatura profanoan ala sakratuan. Haren obrarik



ezagunenak: *Heptameron* ipuin sorta, *l'Oraison de l'âme fidèle*, *les Marguerites de la Marguerite des Princesses* olerki bilduma, gutun, kantu, fantasia mitologiko, antzerki andana, eta XIX. mende bukaeran A. Lefranc batek argitaratu zion poema sorta handia: *Les Dernières Poésies de Marguerite de Navarre*, Paris, 1896.

Gortea Neracen ukanagatik, Paueko errege jauregia berritu zuen Pizkundeko estiloan, eta baratze ederrez apaindu.

Leskarreko katedral erromaniko ederrean ehortzirik daude orain arte aipatu ditudan errege-erregina nafar-bearnesak: Frantzisko Febo, Katalina eta Joan Albret, Henrike II.a eta Margarita. Katedral horrek bisita gehiago merezi luke, bereziki Euskal Herritik.

### Joana III.a Albretekoa

Joana, Henrike II.a Albretekoaren eta Margaritaren haur bakarra, aitaren ondotik Nafarroako erregina eta Bearnoko andere subirano sartu zen. Gorputzez ahula izanagatik, gogo-bihotzez indartsua zela erakutsi zuen bortxazko ezkontza bati ezetz erranez finki aldare aurrean, 13 urte zituela, 1541ean, eta jite gogor hori agertu zuen du bizitza osoan, bereziki erlijioan eta politikan, biak bat eginez ordu hartan ohi zen bezala. 1548an esposatu zen Frantzia berehere horretako Antoine de Bourbon erregeen askazi urrunarekin. Bi haur ukan zituzten: Henri III.a Nafarrokoa, denborarekin Frantziako Henri IV izanen dena, eta Katalina.

Hamar urtez ongi konpondu ziren. Emaztea bezala, Antoine erlijio berri-tuaren alde zegoen. Baina Katalina Medici Frantziako erregina erregenteak katolikoen alderdira bildu zuen ohean sartu zion maitale baten bitartez. Gudukara joan zen, eta 1562an hil zuten, Rouen setiatuz.

Alderantziz Joana kalbinismoan gogortu zen, erlijio katolikoa debekatu zuen bere bi etxaldeetan, eta kalbinismoa inposatu. Bearnon hein handi batean erdietsi zuen, haatik Baxenabarren arrakasta guti lortu zuen, halaber Frantziakoa izanagatik bi lurralde horien artean korralatua den Zuberoan. Euskaldun laborari mundua ohiko erlijioari atxikia zegoen, jaun famatu batzuen aldean: Domintxaine, Latsaga, Etxaux, Lüküz agertu ziren gudari katolikoen aitzinean. Eta kalbinisten burua nor ote dugu? Agaramont, prefosta! Oilar bata hemen, bestea bisean bis, beti bezala!

Bi armadak aldizka Zuberoan sartu ziren. Joanarenak Maule handizki kal-tetu zuen, eta bi euskal lurraldeetan ehun bat eliza erre zituzten, haietan Ur-datx Santa Grazikoa, baina hau beti hor zegoen, beharrik ez baitzen biziki suhoi! Joanak parrokia horri ekialdetik eremu zabala kendu zion, oihantsua, eta iraunkorki Bearnori lotu.

Beraz Joanari aiherr egoteko arrazoirik bazuten zuberotarrek, eta hortik sortu omen zen gure pastoralak, Paueko jaun kalbinistek buruz erresistentzia moduan, haiek arbuiazten zituzten sailduak ospatuz, euskaraz gainera, zuberotar gizon anitzek bearnesez ere bazekitelarik.

Haatik Joana erregina horrek euskaldunei opari on bat egin zigun: Joanes Leizarraga beskoiztar apez ohi kalbinistari, Bastidako protestante artzainari manatu zion Testamentu Berria euskaraz itzul zezan. 1572an burutu zuen li-burua talde lana izan zen. Laguntzaileen artean bazituen zuberotarrak, eta ho-rietarik bi ezagutzen ditugu abizen eta deituraz bederen: Tartas edo Tartaz Sa-rrikotapekoa, eta Landetxeberri Ündüreintarra, biak artzain kalbinistak, apez ohiak, Leizarraga bera bezala.

Joanak holakoak hemendik Genuako eliza kalbinistara igortzen zituen teo-logia berriaren ikastera, Eneko Ezponda / Enecot de Sponde mauletari huma-nistaren bitartez. Joanaren idazkaria zen, eta Nafarroako Estatuaren kargudun garrantzitsua. Donapaleun hil zen 1594ko agorrilean armada katoliko txiki batek, Monetaren Etxea xehatuz ber denboran.

Enekoren seme bat, Jean de Sponde (1557-1595), katoliko egin zen Henri-ke IV.a erregeari jarraikiz; XVI. mendeko frantses poeta handienetakoa da bere sonetoez eta beste olerki barrokoek. Horren anaia Henri de Sponde Pamiersko apezpiku izan zen, eta horren ondotik Jean de Sponde, poetaren semea eta homonimoa. Ezponda familia Ündüreinetik jalgia omen dugu, eta ez Hegoal-detik Interneten ageri den bezala. Horri zor zaio Mauleko udaletxearen lekuan eraiki zen lehenbiziko egoitza, gero Agaramonteko jaun batek berrantolatu zuena XVII. mendean François Mansard arkitekto famatuaren estiloan, on-dotik Montrealgo familiara pasa zen, 1777an Zuberoako Estatuak erosi zu-ten, eta suprefetura izan zen 1800. urtetik 1926. urtera. Hor gobernuak pre-fetordearen kargua ezabatu zuen, Mauleko arrondizamendua halaber, Zube-roa Olorokoari lotuz, salbu zazpi herri, Baionakoari utziak. Suprefetura ohia denbora batez lanbiderako ikastetxe bat izan zen. 1980. urtetik Maule-Lex-tarreko udaletxea da. Herriko etxe ohia, Lextarreko pilota plaza bazterrean, Ondarearen etxea da gaur.

Artetik errateko, zuberotar intelektualek leku ederra bete zuten Donapaleun mendez mende: Eneko Ezpondak beraz XVI.ean, Oihenartek XVII.ean, Aita Etchecoparrek XIX.ean kolegio katolikoa eraikiz, eta Junes Casenavek XX.ean ikastetxe hori berrituz.

Joana III.a Albretakoarekin burutzeko, Parisen hil zen 1572ko ekainaren 9an, 44 urterekin, zenbaiten ustez pozoitua, seguruago birikeriak higatua, bular errai bat min horrek jana baitzuen. Vianako printzearen heriotza gogora dakar, ber motakoa izan baitzen, ber mesfidantzekin.

Joana hori *de facto* Nafarroako azken subiranoa dugu, ezen horren semea, Henrike III.a, Nafarroako errege legitimoa izanagatik, Frantziako politikan murgildu zen erlijio gerlen karietara, horko errege bilakatuko, eta nagusiki arabera jokatu; amarenganiko Nafarroa txikia urrun utzi zuen, aitaren aldetiko erresuma handiaren hegalpean eta mesedetan.

## Frantziaren azpira

1553an sortua Paueko errege jauregian, Henrike III.a Nafarroakoak ama zenaren segida hartu zuen 1572an Bearnon eta Nafarroan. Gaztaroa Neracen, amama Margaritaren jauregian bizi izan zuen gehienik. Gero gorabehera handiak ukan zituen Maria Medici Frantziako erregina katoliko puxantarekin erlijio gerlen karietara. Xehetasunetan ez naiz sarturen, errege handi horren historia, nagusiki frantziarra, franko zabaldua baitago, eta Zuria I.aren bidetik urruntzen gaitu.

1559an Henrike III.a Frantziako erregea ganibetaz hil zuen Jacques Clément dominikar fraide fanatikoak, horren nazioarteko politika ez zitzaiolako aski katolikoa. Erregeak oinordeko hurbilik ez zuen. Beraz, koroa bearnese kusi hein bat urrunari zegokion: Henrike III.a Nafarroakoa, Frantziako Henrike IV.a izango dena ber denboran.

Haatik koxka bat badago: subiranoaren kalbinismoa. Gehiengoak ez zion barkatu, eta *Noste Henric* delakoa erresuma berria gerlaz konkistatu beharrean gertatu zen. Hein handi batean etsaien garaitzea erdietsi zuen, salbu Parisen: bere hiriburua ezin zuen hartu. Beraz, 1594an katoliko egin zen, Chartresko katedralean sagaratu zuen, eta Parisek ate nagusia zabaldu zion.

Henrike III.a / IV.a bi erresumatako errege da, *Roi de France et de Navarre*. Nafarroa ez zen ezabatua, Frantziarekin ez zuen ikustekorik, salbu biek ber subiranoa zutela, bien arteko lotura errege horren pertsona zelarik. Ongi. Baina ber uztarriaren azpian, zer idi pare desperea! Bestela erranik, ohean erraldoiak txikerra leher dezake, nahi gabeen ere, lotarik. Edo *Pâté d'alouette et de cheval* delakoak irauin ote zezakeen? Henrike bizi deno bai. Gero, Luis XIII.a semea zaldun eginen zelarik, zaldiak txoria ez ote zuen irentsiko?

Henrike III.a / IV.a bere aitzinekoa bezala zendu zen 1610ean, beste fanatikoko baten eskutik, François Ravailac deituak eraila, erregea gerla baten piztera zihoalarik Austriako eta Espainiako inperio katolikoaren aurka, Alemaniako printze protestante batzuen laguntzarekin.

Nafarroari eta Bearnori gertatu beharra 1620an agitu zitzaien Batasun Ediktu baten bitartez. Bearnoko kalbinisten sektarismoak aitzakia emanik, Frantziako eta Nafarroako errege berria Pauen sartu zen gudaoste txiki batekin, eta *Edit d'Union* delakoa inposatu zuen, Bearnoko eta Nafarroa Frantziari lotuz. Ez zituen ezabatu, foruak utzi zizkien, baina beregaintasuna kendu zien. Biziraun zuten, baina koma artifizial batean, Frantziako erregea mediku.

1789an Frantziako Iraultza handiak azken ukaldia eman zien: abuztuaren lauko gau famatu hartan, Legebiltzar Konstituziogileak Bearnoko jaurerria eta Nafarroako Erresuma ezabatu zituen, baita horiekin batera Lapurdi eta Zuberoa herriak ere.

## Burutzeko

Horra nola bukatu zen Zuria I.aren erreinadian hasiriko bilakaera galgarria. Hor piztu ziren gatazka zibilek, agaramontarren eta beaumontarren arteko liskarrek erresuma bi zatitan banatu zuten eta zinez ahuldu, Frantziako eta Gaztelako erregeen aurrean. Gainera, beaumontarrek Fernando Katolikoari Nafarroako atea ireki zioten, sartzan lagundu zuten, garaitzan urgatzi, eta zapalkuntzan lauzkatu. Holako egitateak ez ote du izenik? Eta nola deitzen da? Ez erantzun, bakoitzak badaki.

Denen giltza, Joan II.a errege lapurra dugu, Zuriarenganiko haurren esku-bideak ukatuz Joanarekiko Fernando II.a haren faboretan, azken su hilgarri horren pizlea. Baina beherakada 1200. urtean hasia zen, Gaztelako erregeak

Antso Azkarrari hartu zizkionean Araba eta Gipuzkoa, eta 1217an Tibalt I.ari Durangaldea Bizkaian. Nafarroa hegalik gabe gelditu zen, eta Joan II. arekin azken indarrak higaturik, Frantziaren eta Gaztelaren artean galdua, “zorri bat bi tximinoren artean bezala”, Henrike II.a errege malurusaren hitzetan.

Gaur lehengo Nafarroa handitik gelditzen zaiguna bi zatitan banatua dago, Espainia eta Frantzia estatu harraparien arteko mugak urratua. Zuzen den bezala, bi aldeetako lurralde nafarrak mugaren gainetik berriz hurbiltzen ari dira. Horrek ez du baztertzen batasun zabalago baten beharra, hastapeneko Nafarroa bi zati horiek baino gehiago baitzen, aipatu berri ditudan hiru lurraldeekin.

Beste biak, Lapurdi eta Zuberoa, *de jure* ez dira luzaz egon euskal erresuman Antso Handiaren ondotik, baina *de facto* nafarrak dira sakonean, usu historiaz, beti hizkuntzaz eta soziokulturaliki, “Lingua Navarrorum” horretan Nafarroako azken bi zatietako euskalkietarik oso hurbilak.

Haatik, gaur ere agaramontarrak eta beaumontarrak baditugu Euskal Herrian. Beren arbasoak baino zuhurrago bilakatu behar lukete, baina berehala.

## Bibliografia

Orden kronologikoan jarriak daude:

**Jaurgain**, Jean de: *La Vasconie*, Paue, 1898-1902 (2 liburu) eta Princi Négue Editor, Paue, 2004-2008 (3 liburu).

**Veyrin**, Philippe: *Les Basques*, Musée basque, Baiona, 1943, 1947, 1955, 1959, Editions Arthaud, Paris, 1977.

**Tanga Lerga**, Jesus: *Navarra, geografía e historia, II, Sus hombres*, Editorial Gómez, Pamplona, 1972.

**Narbaitz**, Pierre: *Nabarra ou quand les Basques avaient des rois*, Diffusion Zabal. Baiona, 1978. Espainolez itzulia.

**Mainhaguiet**, Ambroise: *Le royaume de la Basse-Navarre*, Editions Ezkila, Abbaye Notre-Dame de Belloc, 64240, Ahurti / Urt, 1978.

**Goyheneche**, Eugène: *Le Pays Basque*, Société nouvelle d'éditions régionales et de diffusion, 8 av. de Lattre de Tassigny, Paue, 1979.

**Régnier**, Jean-Marie: *Histoire de la Soule*, Ekaina, Donibane-Lohizune, I. liburua, 1991.

**Tucóo-Chala**, Pierre: *Petite Histoire du Béarn (du Moyen-Âge au XXe siècle)*, Princi Negue, Pau, 2000.

**Davant**, Jean-Louis: *Histoire du peuple basque*, Elkar, Donostia-Baiona, 2007.

**Davant**, Jean-Louis: *Antso handia* pastoralara, Maule, 2004 (libretereko emendioa).

**Davant**, Jean-Louis: *Xiberoko jauna* pastoralara, Ezpeize, 2008 (libretereko emendioa).

## II

# NAFARROAKO BLANCA TRAJERIA

Blanca edo Blanche, Nafarroako erregeña zen XV mentean (1386-1441), Jeanne d'Arcen denboran (1412-1431). Siziliako Martin erregearekin ezkonturik 1401ean, senarra galtzen dū 1409an: hogeita hirur urteak dütü eta haurrik ez dū. Nafarroan tronüko segida segürtatü behar da. Arren Blanca berriz ezkontzen da, 1419an. Bigerren senarra, Juan, Aragoiko erregearen semea da. Bi erresüma ziren ordüan Espainian: Aragoi eta Gaztela (Castilla). Aldiz Nafarroa bortüaren bi aldeetara hedatürük zagoan. Errege-erregeña frantziar-euskaldünak zütüan, Nafarroako erregeña primen eta frantses printze zombaiten haurrak. Heben emazteak ere tronüala igaiten ziren, ez erregearen kontsorte, bena erresumaren jabe subirano, erraiteko maneran errege bezala, hala nola Ingalaterrako gisan.

Blancak 34 urteak dütü, Juanek 22ak. 1421ean seme bat horra zaie, Carlos / Xarles, Vianako printzea. Ama zentüko delarik, semea horren ondoko xüxena date tronüan: aita errege kontsortea baizik ez da, orai Ingalaterran Filipe printzea den bezala, bena honek ez dū errege titülürük. Mementoko Blancaren aita da Nafarroako erregea: Carlos III «Noblea». 1425ean hiltzen da, eta 1429an Blanche alabak erregeña koroha jaunsten dū Iruñeko (Pamplonako) katedralean.

Juan Aragoiok sūdürra sartzen dū Gaztelan (Castillan), hontarzün handiak beitütü han. Zerbait haboro nahi dū: potere politikoa. Gaztelako errege galanta zirukatzen dū. Arren hortik aitzina, Juan Aragoiokoa türken tandan sartu behar düt, aldiz Gaztelako erregea kiristietan, Blanca bezala.

Gerla da, eta Juanek galtzen dū. Bake ahül baten ondotik, berriz galtzen dū, eta Gaztelako armada Nafarroan sartzen da. Blanchek senarraren astokeriak

pakatü behar dütü Nafarroako diharü kütxak eta kesak hüstez, erresumak eta erregiñak gerla hortan ikustekorik ez düelarik. Azkenekoz Blancak bakea finkatzen dü Gaztelako erregearekin.

Blanche I44Iean hiltzen da, 57 urteetan. Viana semeak segida hartü behar lüke. Bena Juan aitak tronüa kentzen deio. Semea oldartzen zaio. I55Ian gerlan hasten dira. Semeak galtzen dü, presoner dago Zaragozan, eta noizbait libre. Aitak, Nafarroatik hürrüntzeko, Katalunialat igorten dü gobernari kargüarekin. Katalanek Viana zinez maite düe. Bena Bartzelonan hiltzen da I46Iean, berrogei urteetan, bular erraiak hirotürik. Hümanista bat zen, literatürari eta müsikari emana, artisten lagüna: apentziala ez aski gogor erregegoako.

Viana eta Juanen ondotik, antzerki hontarik kanpo, gerla zibilak lüzatüko dira bortüaren bi aldeetan, Agaramontesen (Agaramontarren) eta Beaumontesen (Beaumontarren) artean. Nafarroa erdi deseginik ütziko düe Gaztelako armadari бүrüz, eta gero Frantziak eta Espainiak bi zatitan buzinkatüko düe.

Halere Nafarroa bizi da, Zuberoa halaber, bai eta beste bost eüskal «probintziak», gure lürralde historikoak. Leheneko aharren ondorio txarretarik ikusten dügü oraikoak beste gisaz antolatü behar dütügüla, algarri mintzatzez eta jelkibide baikorrek edirenez. Trajeria honen irakaspen bat da, jokülari-aktürrek edertürik. Beste irakaspena, gizon-emazteen arteko bardintarzüna, beti bidean.

## EDIRENGIA

Lehen perediküa

**Sataneria**

- 1 – Senarra hil zaio Nafarroako Blanca printzesari: familiak berriz ezkontaraziko dü.
- 2 – Blanca eta Aragoiko Juanen ezteiak.

**Kanta**

- 3 – Blanca bere aitaren ondokoa date tronüan.
- 4 – Senar-emazte berriak Gaztelan plantatzen dira behin-behin.
- 5 – Han sortzen da Xarles Vianakoa, amaren ondokoa.

**Kanta**

- 6 – Hiruak Nafarroalat ützültzen dira.
- 7 – Nafarroako Biltzarrak Viana erregegeitzat honartzen dü.
- 8 – Carlos III erregea, Blancaren aita, hiltzen da.

**Kanta**

- 9 – Blanca erregiña Iruñen (Pamplonan) korohatürrik.
- 10 – Xiberoko haütetsiek zin egiten deioe.
- 11 – Artzainak agertzen Iratoron.

**Kanta**

- 12 – Andere gorriak trapuzakan.
- 13 – Aragoiko Juan Gaztelako erregeari oldartzen.
- 14 – Blancak Gaztelako erregearekin bakea egiten.

**Kanta**

- 15 – Blancak dote bat emaiten deio Xarles Maulekoari.
- 16 – Amak Viana semeari aholkü honak emaiten deitzo.
- 17 – Blanca erregiña hiltzen da.

**Kanta**

- 18 – Andere gorriak berriz lanetan.
- 19 – Blancaren ordeinüak Viana errege izentatzen dü.
- 20 – Aragoiko Juanek tronüa züzenkontre hartzen.

**Kanta**

- 21 – Xarles Vianakoak gipuzkoarrer dei egiten dü.
- 22 – Aitaren aitzi gerlan sartzen da, galtzen dü eta presoner dago Zaragozan.



**Kanta**

23 – Blanca semeari agertzen zaio.

**Kanta**

Azken perediküa

**Kanta**

## Lehen perediküa

Egün aipatüren dügü / entzüle maitagarria  
Eüskaldünen erregiña / Blanca baten historia.

Jeanne d'Arken denboretan / Nafarroan primatürik  
Tronüalat igan zen / bere aitaren ondotik.

Gazterik alargüntsatu / eta berriz ezkontü zen  
Juan Aragoiko printzea / züala senartako hartzen.

Juanek ez züan züzenik / Nafarroako lürretan  
Eta südürra sartü züan / Gaztelako aferetan.

Hontarzünak han ükenez / nausi nahi zatekean  
Gaztelako erregerik / ez züan üzten bakean.

Horrez arrenküra züan / oi Nafarroako Blancak  
Eta behin baratü zütüan / aüzoarekiko gerlak.

Blancaren ondotik nausi / jarri beharra zen Xarles  
Juanekin üken semea / erregegeia zelakoz.

Bena Blanca zentü baiko / Juan tronüaz jabetü zen  
Xarles Vianako printzea / hantik züalarik baztertzen.

Erregegei gazte harek / bere leküan sartzeko  
Aita düan etsaiari / gerla egin behar deio.

Hau da Beaumontarren eta / Garamontarren aharra  
Herioala beitu bulkatzen / eüskal erreinü zaharra.

## Sataneria

Jelki Bortüeder eta Garamendi satanak.

### **Bortüeder**

Pastorala eri da / zonbaiten ustetan

Üdüri zaizü dela / galtzeko bidetan?

### **Garamendi**

Arrakasta handia / gaizto da gisala

Zonbaitek maite düe / martiren itzala.

### **Bortüeder**

Martirik aski badü / gaurko honek ere

Jentea bildü zaigü / saldoan halere.

### **Garamendi**

Eüskaldün debrü horik / ezin hezi dira

Ez dügü plainitzerik / gihau hala gira.

### **Bortüeder**

Ofizio hau segür / ez da galtzekoa

Zeren pastoral(a) ez da / kristau gabekoa.

### **Garamendi**

Gure lana jagoiti / dantzen emaita

Andere gorrier ütüz / gaizki erraita.

## Jelkaldia [I]

Oliteko jauregian, 1419 urtean, urdinen aldetik jelki  
Aragoiko erregiña Leonor eta Nafarroako errege Carlos  
III.a Noblea, biak alargünak, Blanca bera bezala.

### Leonor

Jinkoak deizüla(a) egün hon / jaun txit ohoragarria!

### Carlos

Bai eta zuri parte hon / andere maitagarria!

### Leonor

Zure alabaren berri / jakinik horra nitzaizü  
Senargei bat egokia / harentako banikezü.

### Carlos

Pentsatü behar nükea / zure semea dateala?  
Bena tratüan hasi niz / beste printze batekila.

### Leonor

Ez düzü segretü bat ez / Foixko jaun kontea dela  
Ha(a)tik ikusi behar düzü / nontik düzün abantaila.

### Carlos

Harekin ezkontüz geroz / bortüa gainti lezake  
Nafarroaren zorrea / bestela da franko neke.

### Leonor

Iparraldea hürün düzü / hüllan aldiz Aragoia  
Honaintian dügülarik / bortü hoberenen goia.

### Carlos

Aüzo et(a) askazi gira / bena frankotan aharran  
Nafarroa txipi honek / badü lagünen beharra.

**Leonor**

Ezkontza honen arartez / egin dezagün bakea

Ipar ametsak ützirik / hegoan finka leküa.

Gaztelarekin halaber / ontsa jarriko zirade

Ene semea hor beita / hontarzün handien jabe.

**Carlos**

Ihizlari gaitza zira / bildü naizü sareetara

Goatzan arren berehala / ezkontzaren prestatzera.

**Jelkaldia** [II]

I419an, Iruñeko (Pamplonako) katedralean, Blancaren eta Aragoiko Juanen ezteiak. Horiekin daude bereziki Blancaren aita den Carlos III.a Nafarroako erregea, Juanen ama den Leonor Aragoiko erregiña, Korteen Biltzarreko idazkaria, Iruñeko apezküpüa. . . Denak jelki, nor bere bortatik.

**Carlos III erregea**

Ezkontza hau bereizi da / tronüa beita joküan  
Lehenik entzün dezagün / zer ote den kontratüan.

**Blanca**

Senarra ziren bezala / etxen zirate nausia  
Eta hor nik emazteak / zor deizüt errespetüa.

**Juan**

Erregiñageia zira / zure aitaren ondoko  
Eta nik lehen süjetak / hortan deizüt sinetsiko.

**Blanca**

Ni zentüko nizanean / gobernadore zirate  
Bena errege tronüa / gure primüaren date.

**Juan**

Zütarik landa bizi baniz / eta haurrik ez badügü  
Nafarroa dit ütziaren / bizitzeko ene ogüz.

**Korteetako idazkaria**

Nafarroako Biltzarra / eta herriak osoan  
Heben jakile giaudetzü / lege zaharra gogoan.  
Nafarroan egon bedi / gure nausien koroha  
Errege honen ondotik / Blancaren bürüan oha.

**Iruñeko apezküpüa**

Nik, züen artzain lehenak / bien baimena hartürük  
Benedikatzen zütüet / egon ziteien ezkontürük.

## Esposen kantorea [*Kanta*]

Agur eta ohore Blanca printzesari  
Halaber jauna zuri, haren esposari  
Jinkoak zaint zitzela fidelik algarri  
Eta oroz gainetik gure herriari.

Printzesa eder eta bertütez betea  
Nafarroa dükezü aitaren dotea  
Prezioski düzün etxek haren ber bidea  
Lagüntzale dükezü popülü maitea.

Oi Aragoiko jauna, Blancaren lagüna  
Etxean zü zirate bai etxeko jauna  
Bena kanpoan nausi nafarren legea  
Erregiña hau date daigün erregea.

Emankor izan bedi züen batarzüna  
Tronüak üken dezan segida zügüna  
Baztertüz aüzo hoiien janiza handia  
Bakean bizi dadin eüskaldün jentea.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

## Jelkaldia [III]

Oliteko jauregian jelki Carlos III erregea eta Blanca erregiñageia.

### Blanca

Aita, eskerrak dereitzüt / eman deitazün gizonaz  
 Bai lagün maitagarriaz / eta lagüntzale honaz.

### Carlos III

Mesfida hadi alaba / hire bihotz honaz  
 Eta hain gazte hartürik / sobera maite düñanaz.  
 Hire jauna ohorazan / bena hi hiz ene prima  
 Erreinüko aferetan / südürrik sar ez dezala.

### Blanca

Aita, zük düzü haütatü / nik sinestea dit egin  
 Behar nükea oitean orai / senarrarekin gaizki jin?

### Carlos

Haurra, ez dün kexatzerik / züzena dün zaintü behar  
 Kontratüa sinatü dün / hi hizate jabe bakar.

### Blanca

Zertako da kontratürik / algar maite den leküan?  
 Gure artean gütüzü / antolatüko bakean.

### Carlos

Ezkonberrien ametsak / ez diñe lüzaz iratüen  
 Eta gaineala kantükoek / deikiñe saltsa nahasten.  
 Bestalde gogoan harran / ez girela hor familian  
 Erresumaz ari gütün / Nafarroa dün joküan.

### Blanca

Aita, badakit zer den / erresumako legea  
 Eta horren arabera / ni nükezü erregea!



## Jelkaldia [IV]

Oliteko jauregian jelki Blanca eta Juan.

### Blanca

Senarra zütüdanaz gain / jarraiki beharko deizüt  
Gaztela hürrün hartarat / egongia han beitüzü.

### Juan

Peñafeleko herrian / ai zer gaztelü azkarra  
Bazter ederren erditan / aterpe gora, segürra.

### Blanca

Gogo honez horra nüzü / bai zure amoregatik  
Oliteko jauregia / gogoan dizüt hargatik.

### Juan

Ahatzaraziren deizüt / gisa batez edo bestez  
Bereziki zuretako / eginen dütüdan bestez.

### Blanca

Aitak ere hitzeman deit / kantari baten igortea  
Haren lagüngoak halaber / arintüren deit egoitea.

### Juan

Jaun-andere hanitxekin / harremanetan nüzü han  
Ez zirate segür zihau / gaztelü handi batetan.

### Blanca

Zer nahi gisaz ez diket / hürrün lüzaz egoiterik  
Haur bat üken bait ützüli / behar dügünaz geroztik.

Biak akort girenaz gain / goatzan arren prestatzera  
Eta nork bere miskandier / manü zonbaiten emaitera.

**Jelkaldia** [v]

I42 Iean Peñafieleko komentüan sortü da Carlos/  
 Xarles printzea, Juan eta Blancaren semea. Jelki Blanca,  
 Juan, emagintsa, neskato bat haur sortü berria besoetan,  
 Rui Diaz de Mendoza jauna, Usua nafar koblakaria.

**Blanca**

Agur, oi seme maitea / egün beitzütüt ikusten  
 Nahiz bazüan builta bat / züntüdala borogutzen.

Jinko jaunari eskerrak / aita bezain zütüt eder  
 Aitaita bezain bihotz hon / izan ziteala halaber.

Irus bizi ziteala bai / zure bideak egitez  
 Eta lüzaz ere bizi / eginbideak ontsa betez.

**Juan**

Ene haur txipi-txipia / ez dük galtatü sortzerik  
 Txori hümea bezala / habiatik hiz erori.

Mündü basa batetarat / urtuki behai zorteak  
 Hitaz ürriki handi diat / azkar hezala biziak.

Arauz errege hizate / behin gure Nafarroan  
 Eta xantza lagün badüt / gero Espainia osoan.

**Blanca**

Rui Diaz de Mendoza jauna / zoaza bertan Olitera  
 Aita düdan erregeri / berri honen erraitera.

Eta zük kantazazü / Usua koblakaria.  
 Nafarroako bortütik / aire fresken ekarlea.

## Usuaren koblak [Kanta]

Agur zuri lehenik, ene anderea  
Palazio hontako dametan lilia  
Soina bezain ederra beitüzü erria  
Jaunak saristatzen dü zure bertütea.

Erregiñageiaren printze lagüna zü  
Emazte distirantak aita jarri zütü  
Ohore handi hori gazterik beitüzü  
Lüzaz merexitzea desiratzen deizüt.

Carlos printze gaztea, Gaztelan sortüa  
Nafarroan dükezü amaren dotea  
Laster har dezazüla harako bidea  
Han beitzirate behin errege handia.

Emeki handi zite, gogor da bizia  
Eta zoin eder aldiz haur inozentzia  
Aski goizik horra da helas gizontzea  
Lehen adin ezti hoi ez d(a) aski lüzea.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

**Jelkaldia** [VI]

I422an, Peñafieleko jauregian, jelki Blanca, Juan, neskato bat haurrarekin, apez bat eta soldado zombait.

**Blanca**

Kontratüz hitzartü bezala / Nafarroalat ützü gitean (gitin)  
Gure printze txipi hori / hanko gisan handi dadin.

Nafarroako herriak / ezagütü behar dütü  
Hanko jenteak, üsantxak / eta legea beretü.

**Juan**

Hitzeman neizünaz geroz / hola gerta bedi arren  
Gaztela heben ützirik / hara zütüt lagüntüren.

Gero ützüli behar dit / aferen antolatzeke  
Gaztelan dütüdan lürren / eta hirien zaintzeke.

**Blanca**

Hargatik ez ziteala sar / Gaztelako politikan  
Hanitx arriska ziniro / hanko erregerekilan.

**Juan**

Zaude trankil, ez niz haurra / gerla bide(e)tan sartzeke  
Zühürtziaz ariko niz / arrisküen baztertzeke.

**Blanca**

Zütan fidatzen niz arren / bakearen faboretan  
Aüzo handi horren aitzi / ez gitean (gitin) sar aharretan.

Eta orai har dezagün / Nafarroako bidea  
Gure haidürü beitate / Oliteko jauregia.

**Jelkaldia** [VII]

I422an, Oliteko jauregian, jelki Blanca, Juan, Carlos III erregea, andere bat Xarles txipiarekin, Korteetako (Biltzarreko) jaun elibat, Iruñeko apezküpia. . .

**Blanca**

Aita errege handia / eta nafartar jentea  
Bere aitetamekila / hor dago Carlos gaztea.

Biltzarreko jaun argiak / züenganik dügün jakin  
Legearen arabera / Nafarroan zer lekü düan (din).

**Kortebürüa**

Erresumako primaren / primüa denaz geroztik  
Erregegei züzena da / bere amaren ondotik.

Vianako printze titrea / hartze dü erregegeiak  
Arren izenbürü hori / emanen deio erregeak.

**Blanca**

Eskertzen zütüet jaunak / legearen zaintzaleak  
Eta zuri hersatzen niz / errege jaun epailea.

**Carlos III**

Legearen arabera / Korte(e)kilan akortean  
Vianako printze dela diot / gure don Carlos gaztea.

Hebenko errege date / Jinko honak plazer badü  
Horren ama erregiña / dükealarik herioz deitü.

**Blanca**

Haurraren aitarekila / gaur deizüegü hitzemaiten  
Gure semea dügüla / erregegoan eraikiren.

**Jelkaldia** [VIII]

I425ean, Oliteko jauregian, jelki Carlos III erregea  
(hedailo) eta Blanca...

**Blanca**

Aita, zeren deitü naizü / zerbait handi badükezü?

**Carlos III**

Alaba, hiltzen ari nün / entzün ezan bi aholkü!

**Blanca**

Aita hona, isil zite / zure beharra beitügü!

**Carlos III**

Alaba, zotüka hadi / denborarik ez beitügü!

**Blanca**

Aita, zure aholküak / beti dirate honki jin  
Bena barbera dügün deit / behar dena dezan egin.

**Carlos III**

Barber txipia bego lo / handiak nin orai deitzen  
Arima hari ützirik / Nafarroaz nün oritzen.

**Blanca**

Nafarroa txipi düzü / aüzo handien erdian  
Hala nola küküso bat / bi tximinoren artean.

**Carlos III**

Bakean egon behar din / bizi nahi balin bada  
Aüzoekin ontsa jin hadi / bena güziez mesfida.

Senarrari kasü egion / Gaztelan aberats beita  
Han bazterren nahasteko / ez dezan horrez profeita.

**Blanca**

Zaude bakean (bakin) aita hona / herria date dolüan  
Enekila zuri fidel / erresumako legean.

**Carlos III**

Haurra benedikatzen hait / erregiña berria  
Jinkoak salba dezala / Nafarroako herria.

*(Blancak kanta «Aita zenari»)*

**Aita zenari** [*Kanta*]

Aita nigar dereizüt, haur batek bezala  
Bakarrik ützi naizü zezenen artean  
Ekitoltze betean, plazaren erdian  
Eta zure gain dago Herioren itzala.

Jinkoak ülünpetik argiala zitzala  
Zure hütsak estaliz oi parkamentüan  
Amarekin ezarriz fidelitatean  
Jauna, biak deitzatzü zure bakeala.

Errege hona zinen zure süjetentzat  
Bardin bakezalea beste herrientzat  
Beti gogoan diket zük eman bidea  
Beti gogoan diket zük eman bidea.

Aita, lagün nezazü en(e) eginbidean  
Nafarroa goberna dezadan zühürki  
Eta Viana gaztea eraiki zügünki  
Eta Viana gaztea eraiki zügünki.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: Ozaze Jaurgainean (?)



**Jelkaldia** [IX]

I429ko maiatzaren 15ean, Iruñeko katedralean, Blanca I.a korohatürik erregiña. Jelki behar direnak oro, nor bere aldetik.

**Iruñeko apezküpüa**

Egün bildü gira heben / Iruñeko Andre Marin  
Gure Blanca erregiña / korohatürik izan dadin. (*kohatürik*)

**Kalonje nausia**

Gük apez eta fraideek (*fraidiek*) / erregiña ezagütüz  
Ez zütügü hersatüren / hontarzünez prebalitüz.

**Blanca**

Züer fidatü nahi niz / Jinkoaren otoizteko  
Behardünen lagüntzeko / eta denen argitzeko.

**Beaumont**

Gük Nafarroako jaunek / etsaiaren oldarrean  
Ezpataren lagüngo / zor deizügü, anderea.

**Blanca**

Züen odola zait kario / ez arriska behar gabe  
Bena hala beharrean / armez etxek nezazüe.

**Korteburua**

Heren ordenaren eta / Korte hoi izenean  
Zin egiten deizügü / libürü (*librü*) saintüen gainean.

**Blanca**

Denen ürgaztea dügü / heben arrazu bakarra  
Zelü-lürren erregea / hor dago jüje azkarra.

Legea dügü beteko / eta betaraziko  
Aüzoekilako bakea / müetan segürtatüko.

Erresumako legarrak / ez düüt emendatüren  
Eta zühür egarte / düzüe peretxatüren.

**Korteburua**

Orai arren jente honak / erregiña dügün ospa  
Eta horren ohoretan / has dadila gure besta!

**Jelkaldia** [x]

Xiberoko sindika eta zinegotziak (kontseilari,  
haütetsiak) horra dira Blanca erregiñari zin egitera.

**Sindika**

Xiberotik horra gira / zurekila hitzartzera

Bai eta karia hortara / legarren pakatzera.

Betidanik Xiberoak / üsantxa hau etxeki dü

Iruñeko erregea / nabusitako haütatü.

Legezko bürüzagia / Bordeleko düka dügü

Ingalaterrako erregea / bena bihotzekoa zü.

**Blanca**

Xiberoko aüzo honak / haurrideak ber denboran

Honki jin eta batzarri / züena den etxe hontan.

Züen opari ederrak / izokin eta bigantxak

Zinez ditit estimatzen / bai eta züen üsantxak.

Ordariz hartze düzüe / gure lagüntza osoa

Nafarroan bil dezazüen / ogiarekin ardoa.

**Sindika**

Üsantxaren arabera / gure zina dügün berri

Algarri fidel egonez / goatzan aitzina beti.

**Blanca**

Jauna benedikazazü / Xibero herri maitea

Txipia bezain hardita / gure haurretan haütüa.

## Jelkaldia [XI]

Iratoron jelki artzainak, Blanca eta Viana gaztea.

### **Eñaut**

Iratoron goiti, gizen da mendia  
Üdan hor laketzen da gure artaldea.

Bena larrazkenean, ürzoa bezala  
Bazken ondotik iraisten arrotz herriala.

### **Joanes**

Kanta dezagün kanta Blanca erregiña  
Begirutzen gütüana Erriberan barna.

Aüzoekilako tratüa beitü hor egina  
Hara-honakatzen da bakean artzaina.

### **Petiri**

Jinkoak zain dezala gure Blanca hona  
Bere leküan etxek haren senar jauna.

Beti gora dagola nafarren legea  
Eta horrekin Viana, daigün erregea.

## Iratiko basoa [Kanta]

Iratiko basoan, eder da bagoa  
Basoilar et(a) orkatzen oihan dibinoa  
Üdako beroetan han dizüt gogoa  
Hegiak igaranik, haren barna noa.

### *Arrapika*

Iratiko basoa, oihan dibinoa  
Iratiko basoala (*basula*) zurekila noa. (BERRIZ)

Lamiñen egoitza da, oro misterio  
Ontsa gorderik daude, kukuxkan guri so  
Ahapetik algarri küxelüka mintzo  
Haien hatsa boroga, bristez ostoz ostoa.

Harriz harri jauzten da turrusta sotila  
Xiberoan sortürrik, Ebroala dabila  
Nafarroa kitatüz, adio Tudela  
Katalan itsasoan kontsola dadila.

Okabeko gainean zabaltzen da bista  
Orhiko Parnasoa hüllan da eta  
Zelü mügan zedarrri, Ahüñeko püntha  
Bien peskizan heben, arbasoen jüntha.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

**Jelkaldia** [XII]

Abodi gainean, jelki andere gorriak.

Blanca erregiña horrek / epantxü dikün eginen  
Hain eder eta serio / gureganat ez dün jinen.

Ez otoi denborarik gal / senarrari lot gitean  
Ontsattoz gazteago din / ez dezogün ützt kantüan.

Printze bat andrekar / gaüza pegesa dün hori  
Süia piztü nahi badün / pentsa (e)zan beste zerbaiti.

Politika diñat gogoan / hura beita gerlabide  
Printze hori tronü gabe / nolaz arren egon daite?

Nafarroa txipiegi dün / holako anbiziosaren  
Gatzelako tronüalat / abilki diñat haxitüren.

Nik aldiz berotzen diñat / hanko errege auherra  
Bien artean has dadin / sokatira bat ederra.

Holaxe Blanca xuria / sainta denez ikus bedi  
Eta bere jaun ederra / maitatüko düanez (*dinez*) beti.

Nafarroa ber denboran / nahaskerian sar dadila  
Zezenaren aitzinean / zentzü hona gal dezala.

**Jelkaldia** [XIII]

Gaztelako (Castillako) erresuman, gorrien aldetik jelki  
Juan Aragoikoa, Enrique anaia eta beste zaldün elibat.

**Juan**

Hainbeste jauregi, hiri / etxalte badüdarik  
Egon behar düta beti / besteren peko jarririk?

Züen hona zaintzen beitüt / lehen ministro horren kontre  
Ütziren ote naizüe / lagüngoarik eman gabe?

**Enrique**

Hontarzünez eta lagünez / balia zite nausitzeko  
Gaztelako erresuman / potereaz jabetzeko.

Errege ahüla beita / orai tronüan dügüna  
Hantik dügün bazter eta / han jar gure jaun zügüna.

**Juan**

Goatzan arren jaun harditak / erregeren garaitzera  
Eta bide horrez denak / gure dreten azkartzera.

Urdinen aldetik jelki Gaztelako erregea bere soldadoekin.  
Güdüka.

Juan Aragoikoa ihes bere lagünekin.

**Jelkaldia** [XIV]

Urdinen aldetik jelki Blanca eta Gaztelako  
(Castillako) erregea.

**Blanca**

Aüzo handiari bürüz / egün apalik horra niz  
Ene gizon ergelaren / hütsak betatxatü nahiz.

Ene jauna da jaun hori / mahainean et(a) ohean  
Bena ni niz aitzindari / Nafarroako lürrean.

Eni da haren ogenez / parkamentü galtatzea  
Eta zurekin jauna / bakearen egitea.

**Gaztelako erregea**

Erregiña distiranta / plazer dit zur(e) ikustea  
Eta püxülü dügünaz / algarrekin mintzatzea.

Zure jaunaren ogena / gogo honez dit ahazten  
Bide hortarik bakea / balin badüt edireiten.

Dejadanik sü-eten bat / ene ogüz dit hasirik  
Artean gerlaz agian / etsaia diket aserik.

**Blanca**

Sü-etena lüza (e)zazü / ene jauna ekürü (*ekbü*) deno  
Epeaz balia nadin / haren arrazunatzeko.

**Gaztelako Erregea**

Italian dela badakit / lagüngoia baten bila  
Zük errana beteko dit / artean zentza dadila.

**Blanca**

Beti aüzo gütükezü / aüzo hon izan gitean  
Eskerrak zure lagüngoaz / bakealako bidean.

## Eskerrak Blancari [Kanta]

Bakearen lorian  
Kanta dezagü hirian  
Erregiñari, Blanca honari, eskerrak eman herrian  
Gerla baratü beita Nafarroako lürrean, Nafarroako lürrean.

Gaztelako lautada  
Nafarroaren aüzo da  
Gure lürretan üsü da sartü hanko hartzaren armada  
Hargatik oraikoan gurea züzün otsanda, gurea züzün otsanda.

Bere jaunak eginak  
Betatxatüz erregiñak  
Gaztelarekin arrahartü dü aitak ideki bidea  
Hanko erregea da berriz gur(e) adiskidea, berriz gur(e) adiskidea.

Eüskal haurride(e)kila  
Bardin hürüntü da gerla<sup>1</sup>  
Bake maitean jünta gitzala denak berriz eüskariak  
Eta Blanca begira Uxueko andereak, Uxueko andereak.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

---

<sup>1</sup> Ordükoz eki sargiako hiru eüskal «probintziak» Gaztelako erregearen meneko zaudean, eta beraz eüskaldün franko bazen baren armadan: üsü gipuzkoarrak igorten zütüan aitzinean, Nafarroatik hüllanenak beitziren.



**Jelkaldia** [XV]

Jelki Blanca eta Arradako Xarles de Mauleon gaztea.

**Blanca**

Ene Xarles Maulekoa / herritar estimatüa  
Berri hon bat jakin dizüt / laster zirat(e) ezkontüa.

**Mauleon**

Andere subiranoa / nihauk erran behar neizün  
Bena zure beharrialia / norbait lehentü zitazü.

**Blanca**

Ez ziteala beraz lotsa / leial zütüt ezagützen  
Eta horren ikustatez / egün enegana deitzen.

**Mauleon**

Nafarroako errege(e)n / zerbütatzeko plegüa  
Familian ikasi dit / hori dizügü legea.

**Blanca**

Hürrüntik horra zaizüe / Xiberoko jaunenganik  
Bereziki azkenetik / Oier hirugerrenetik.

**Mauleon**

Arradako jaun eginik / armadaren aitzindari  
Erresuma zaintü züan / eta beti arraheinki.

**Blanca**

Hori güzia gogoan / saristatü nahi zütüt  
Lau herritako mozkina / dotetzat emanen deizüt.

**Mauleon**

Ezin deizüt aski erran / zureganik düdan botza  
Nafarroari zor ditzot / ezpata eta bihotza.

**Jelkaldia** [xvi]

Oliteko jauregian jelki Blanca erregiña eta Carlos /  
Xarles Vianakoa.

**Blanca**

Ene haurra, deitü zütüt / erregegoaz mintzatzeko  
Prestik izan behar düzü / ene kargüan sartzeko.

**Viana**

Ama, presarik ez dizüt / orano lerden zirade  
Üdüriz hoberenean / aita düzülarik berme.

**Blanca**

Aita honaren beharra / badükezü zihauk ere  
Ha(a)tik eüskaldünen legez / erregea zü zirate.  
Püntü hori argi dago / en(e) ezkontzako tratüan  
Korteen (*Kortien*) deliberoan / eta ene ordeinüan.  
Aita errespeta beti / ha(a)tik ez ütз nausitzera  
Orai ari den bezala / Nafarroan manatzera.

**Viana**

Konfidantxa osoa dit / zure aholkü honean  
Bena lüzaz egon zite / Nafarroako tronüan.

**Blanca**

Adina horra zitazü / eta bihotza higatzen  
Nafartarren gidatzeko / zuri nitzaizü fidatzen.  
Erregeak hilkor gira / beste guziak bezala  
Bena tronüan gaudeno / honki egin dezagüla!

**Jelkaldia** [XVII]

I44Iean, jelki Blanca (hedailo) bere jenteekin,  
fraide bat lagün.

**Fraidea**

Erregiñak eritürük / eta zinez akitürük  
Bere üngürüala gaur / zütüe denak deitürük.

Lür hontako üngürüa / ürrentü düala pentsü dü  
Arren hor azken xedeak / nahi deizkü argialatü.

Behar dizügü lehiatü / horien ontsa entzütera  
Eta memento gaitz hontan / horren alde otoiztera.

**Jelki aingürüak eta kanta**

Erregiñaren arima / beste güziak bezala  
Lagüntü nahi dizügü / Jinko jaunaren bortala.

Hura bera da handi / hura errege bakoitza  
Ha(a)tik indarra bezala / bazter gabe dü bihotza.

Jinko jaunak har ditzala / erregiñaren eleak  
Züek ere honar eta / beta Blancaren xedeak!

*(Blancak bere azken otoitzea kantatzen dü botz ahülez).*

**Blancaren azken otoitzea** [*Kanta*]

Herioa hüksüne latza / ülünpe hotz et(a) isila  
Petik horra senditzen diat / hire gaüaren istila.

Oi bizien Jinko jauna / ez nezazüla hilik ützt  
Bena hütsak ahatzerik / dei nezazü zuri bürüz.

Uxueko ama hona / haütü zütüt Madonetan  
Ene korpitza dagoela / pausüan zure hoinetan.

Ene semea, Don Carlos / erregea zü zirate  
Ha(a)tik aitari zor dükezü / errespetüz ikustate.

Nafarroako jentea / ene popülü maitea  
Jinkoak etxek zitzala / bildürük libertatean.

Azken hatsa emaiten dü.  
Denek eraman erditik,  
Nafarroako ereserkiaren ahairean.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

**Jelkaldia** [XVIII]

Jelki andere gorriak.

Emazte sainta hura / joanik epantxütik  
Lanari lot gitean / behar den lekütik.

Errege kontsortea / beti prestik beita  
Noren usukitzera / haxitü behar da?

Ez dün bürü hausterik / horren ikusteko  
Etxen egonez badin / lekü bat hartzeko.

Tronüaren hartzera / bulka dezagüla  
Hortarik bazter dezan / bere haur üküla.

Vianako printze hori / potiko galanta  
Libürüer, müsikari / eman den artista.

Osagarriz halaber / ahül da gaixoa  
Gerlaren egiteko / ez aski astoa.

Nausi hon izateko / ez dün aski gaizto  
Politika ütze beza / izkiribañotzeko (*izkiribañotzeko*).

Pusazale beharrik / ez din Juan erroiak  
Laster zohi beitätü / kantüan janariak (*janbaitak*)!

**Jelkaldia** [XIX]

I44Iean, Oliteko jauregian, gorrien aldetik jelki Juan Aragoikoa, urdinen aldetik Viana, Blanca II eta Leonor arrebak, Iruñeko apezküpüa, Kortebürüa, notaria Blanca I zenaren ordeinüarekin.

**Notaria**

Jaun-andereak heben da / Blancaren testamentüa  
Züen aitzinean orai / nitaz date zabaltüa.

«Gük, nafarren erregiñak / Viana dükegü primüa»  
«Hontarzün denen jabea / herritarren erregea».

**Juan**

Entzün behar ginikezü / ondoko perpaua ere  
Mementoko lehen hori / üzten beitu indargabe.

**Notaria**

«Jaun aitaren erresetüz / otoizten dügü halere»  
«Titre horik ez ditzan har / aitaren baimena gabe».

**Kortebürüa**

Horrek ez dü desegiten / aitzinetik erran dena  
Ez da düdarik züzenez / hartze düala baimena.

Erregiñaren hautüa / legezkoa da osoki  
Nafarroako üsantxa / hola izan beita beti.

Jauna otoizten zütügü / zure semearen alde  
Ordeinüa (e)ta Korteak / ez ditean egon debalde.

**Juan**

Ez düit ükatzen legea / hor da Vianaren züzena  
Ha(a)tik orano gazte da / geroko date baimena!

## Jelkaldia [XX]

I44Iean, Oliteko jauregian, jelki borta gorritik Juan Aragoikoa eta Juana Enriquez, borta urdinetik Viana.

### Juan

Bestetarik jakin aitzin / emanen deiat berria  
Juana Enriquez hau dükek / bertan erregiña berria<sup>2</sup>.

### Viana

Urt(e) erdi doi-doia dizü / gaixo ama zentü zela  
Gaineala sinatü zünüan / jabetüren ez zinela.

### Juana

Errege den aita honi / zor dük errespetüa!

### Viana

Aita düt errespetatzen / bena ni niz erregea!

### Juana

Errak oilasko gaztea / bahüke pretentziona?

### Viana

Ama züzün erregiña / ni nüzü haren primü!

### Juan

Aski dela uste düka / nik düdalarik indarra?  
Norbait izan nahi bahiz / badükek ene beharra!

---

<sup>2</sup> Ezkontza I447an eginen da, bena I44Ietik hitzartürük zen: sei hilabete züan Blanca hil zela.

**Viana**

Ene dretean sartzeko / aski zitazü legea  
Korteen (Kortien) baimenarekin / amaren testamentüa.

**Juan**

Ni nük heben legea / nafartarren erregea  
So egik zer egiten düdan / amaren ordeinüa!

*(Ordeinüa (testamentüa) ürratzen dü).*

**Juan**

Desprimützen hait ergela / beste kargü bat harrezak!

**Viana**

Gerlan ikasi behar diat / hori kaskoan sarrezak!



## Nafarroa desferra [*Kanta*]

Iruñeko ferietan, igaran San Ferminetan  
Bohoka bat heltü zaikü Gaztela hortarik trostan  
Gima harrorik hegoan, irrintzi bat ezpainetan.

Aragoiko printzea zen andereaz agradatü  
Nafartarren bizkar bena bere honetan haütatü  
Emaztetako beitzüan aitarekila hitzartü.

Tratüa bertan eginik, ezkontzea lüzatürük  
Bi esposak orai dira beren xedeala heltürük  
Nafarroako tronüaz züzengabe jabetürük.

Vianako printze gaixoa, heben errege beharra  
Bastarta bezala doa gure menditik behera  
Bere zaldüna galdürük, Nafarroa da desferra!

Hitzak: J-L. D.

Müsika: Iruñeko ferietan, Otxalderen kantore famatütik,  
Erramun Martikorenak emaiten düan bezala.

## Jelkaldia [XXI]

I45 In, Gipuzkoako Seguran, borta urdinetik jelki  
Viana, eüskaldün güdülari elibatekin, Lazkano jauna  
horien бүрү.

### Viana

Gipuzkoar haurrideak / Nafarroatik horra niz  
Züen lagüngoaren eskez / aita etsai baten aitzü.

### Lazkano

Honki jina Probintzian<sup>3</sup> / zure berri badakigü  
Eta zure nahigabe(e)z / ürrikalmentü badügü.

Bena gure nausia da / Gaztelako erregea  
Zin egin deiogü eta / hitza da gure legea.

Lehenago Iruñeri / lotürük ginen gü ere<sup>4</sup>  
Ezin gira harat ützül / jaunaren baimena gabe.

### Viana

Gaztelako erregea / lagüna düт aspaldian  
Eta züen artean niz / harekin akort handian.

Hots lagüntzen banaizüe / jaunaren baimenez date  
Ene aitaren goitzeko / denen beharra beitate.

### Lazkano

Jauna, hola denaz geroz / lagüntü nahi zütügü  
Aita prebalizale hori / denek etsaia beitätügü.

### Viana

Eskermila gipuzkoarrak / sar gitean Nafarroan  
Ez zütüet ahatzeko / errege sartü ondoan.

Et(a) ordüan bake handian / honartüko dü Gaztelak  
Hiru eüskal probintziak / ützüli behar deiztala.

<sup>3</sup> «Probintzian»: Gipuzkoa da zazpi eüskal lürralde historikoetarik bakoitxa, ofizialki «Probintzia» deittü dena; hona besteen izenbütüak: Nafarroako erresuma, Bizkaiko Jaurerria, Araba, Lapurdi eta Zuberoa Herriak.

<sup>4</sup> 1200 urtean eta ondokoetan, Gaztelako errege batek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Durangaldea Nafarroako erresumari hartü zeitzon. Nafarroako erregeak horien berriz biltzera iseiatüko dira behin beno haborotan, dela honez-honean, dela gerlaz, bena kausitü gabe.

## Jelkaldia [XXII]

I45In, Oibar herritik hüllan. Urdinen aldetik,  
gipuzkoarrez lagüntürik, Vianako printzea gerlan  
sartzen da bere aitaren aitzi.

Hau gorrien aldetik elkitzen da bere soldadoekin.

Güdüka.

Galtzale da Viana, presoner hartzen düe.

Zaragozako presontegialat eramanik da.

Han bere zorigaitza kantatüren dü.

(*Vianak kanta «Zaragozako kartzela»*)

## Zaragozako kartzela [Kanta]

Zaragozako kartzela  
Dela kartzela goibela  
Aita krüdelak hor dü kortxelan amaren primü fidela.

Nafartarren historia  
Odolez dügü joria  
Beste(e)n eskütik hilen kortean erregez ere gorria.

Bat erori Peñalenen  
Ehailea nor ote zen?<sup>5</sup>  
Atapuerkan, bai eta Hueskan, gerlan pare bat galdü zen<sup>6</sup>.

Iñigo batek hasia<sup>7</sup>  
Gure herroka lüzea  
Printze frantzesez enpeltatü zen eüskaldün primen azia.

Ni heben azkena nüzü  
Zorte latzaren haidürü  
Aita küküak ama trahitü, Nafarroa dü bahitü.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: Bereterretxen kantorea.

<sup>5</sup> 1076ko arramaiatzaren (ekainaren) lauan, ihiztekan ari zelarik Nafarroa zolan, Milagro herritik hüllan, Antso Gartzes IV.a eküratü zen «peñalen» delako botxe baten gainean, baxa baten hegian; berekin züan lagün talde bat, haietan Erramun eta Ermesinda bere anai-arrebak, erregea ihizteka hartara kümitatü züenak. Norbaitek Antso baxaren behera bulkatü züan, eta Aragoi ühaitzaren bazterrealano larrütü zen. Biharamenean Ermesindak ihes egin züan Gaztelarat eta Erramunek Zaragozalat. Bulkazalea nor edo zoin izan zen?

<sup>6</sup> 1054an Naiarako Gartzea, Antso Handiaren primüa, Atapuerkan hil zen, Burgostik hüllan, bere mügaren zaintzean Gaztelako Fernando erregearen aitzi, hau anaie gazteagoa züalarik.

<sup>7</sup> Iñigo Aritza 824 urtean agertü zen Iruñeko lehen errege. Erresuma hori Nafarroa deitüko da 1178 urtetik: oraike Nafarroa beno zabalago zen, bereziki gaur-egün Vitoria/Gasteizko gobernüaren meneko dauden hiru «Probintzia Baskongadak» edeiten zütüan.

## Jelkaldia [XXIII]

Vianako printzea eri, etzanik dago, lo bezala. Ama zena agertzen zaio, xuriz bezti, ametsetarik ote? Semeari koblakaz mintzo zaio.

[*Kanta*]

Ene semea, ützi züntüdan erregetzeko bidetan  
Gure xederik ezin betean, aita ñapürraren bortan  
Ene beharra badüzü berriz beste mündüko atekan  
Süstengatzera horra nitzaizü Holtzarte lazgarri hortan,  
Holtzarte lazgarri hortan.

Laster artino, seme gaixoa, tünelaren elkigian  
Argi betean elkiko zira zilo horren haraintian  
Han ez dükezü etsai gogorrik, bena zohardi tipila  
Ezagünekin, herritarrekin, adiskide güziekila,  
adiskide güziekila.

Nafarroako jentea bardin elkiko da hilobitik  
Eüskal erroa bizirik beitu, hazten düala barnatik  
Jeiki nafarrak, baskoi azkarrak, eüskaldünen aitzinean  
Herri berri bat dügün eraiki zazpi zatien gainean,  
zazpi zatien gainean.

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.

*Blancak esküa semeari lüzatzen deio, eta jeikitzen lagüntzen dü.  
Jente saldo bat agertzen da, eta bi büürüzagien üngürüian Nafarroako  
ereserkia (himnoa) kantatzen dü.*

## Nafarroa ereserkia [*Kanta*]

Nafarroa, lur handi, zabal, beti leial,  
Zure ospea da antzinako lege zaharra,  
Nafarroa, gizon askatuen sorlekua,  
Zuri nahi dizugu gaur kanta. (BERRIZ)

Gaiten denok bat, denok gogo bat  
Behin betiko iritsi dezagun aintza,  
Bakea (e)ta maitasuna. (BERRIZ)

## Azken perediküa

Zorte hobe bat hartze züan / Blanca Nafarroakoak  
Erregiña eder eta / bertüte handikoak.

Vianako printze gaixoa / Blancaren üdürikoa  
Errege hon izateko / ez zen ez aski gaiztoa.

Aita prebalizalea / ezin üken züan (*zin*) baztertü  
Hola zen Aragoiko Juan / Nafarroan erregetü.

Nafartarrak zatitürük / jarri ziren bi partetan  
Et(a) aüzoak deitü zütüen / lagüntzale güdüketan.

Iparretik sartü ziren / Frantziako jaun anbiziosak  
Hegoaldetik Espainiako / errege bortitz handiosak.

Holaz ez züan iraünen (*iraiñen*) / Nafarroako erresumak  
Gure artean gitean / antzaka bai eüskaldünak.

Orit gitean Blanca honaz / eta haren erresumaz  
Orokorki Nafarroaz / hala nola gure amaz!

Iruñen arrapiztü da / Nabarr(a) aldeko mengoa  
Horrekin süsta dezagün / Zazpiak-Baten gogoa.

Bil gitean eüskaldünak / Eüskal Herriaren alde  
Europan eta mündüan / popülü bat beikirade.

Izan ontsa püblik hona / hanitx lagüntü gütüzü  
Beste pastoral bat noizbait / heben emanen deizügü!

## Iratin goiti eta behera [Kanta]

Iratin beher(a) elürrak Erriberan ardu gorri  
Erriberatik ekia bortüan goiti kantari  
Ez ohointzak, ez gezürrak ezin dü hori bahitü  
Blancaren herri lerdena debaldetan da trahitü.

Bastidatik Tuterara, denak dira nafartarrak  
Ahüñetik Larrunera, güziak dira nafarrak  
Ebroko baratzetarik amiküztar oihaneala  
Garaikoa, behetarra bere lürretan dabila.

Lapurarrak, arabarrak eta beste herritarrak  
Orit nola gurea zen Iruñeko erregea  
Ützi günüan etxea, bena hor dago jabea  
Prodigoak ützül arren, jünta ditean indarrak.

Etxek dezagün bizirik nafarren hizkuntz(a) ederra  
Zabal pelegrien hoinek ireki bide xaharra  
Etxepare, Leizarraga, Xalbador, Axular, Elso  
Amendüz, Campion, Oxobi, Barbier, Narbaitz, Apat, Erdo...

Hitzak: J-L. D.

Müsika: zehazteke.





## III

## HISTORIALAT SOZ: ZÜBEROA ETA NAFARROA

«*Nabarra ou quand les Basques avaient des rois*» libürüan, Pierre Narbaitzek jakinarazten deikü I44I urtean, Nafarroako Blanca I.a erregiñak lau nafar herrietako mozkinak dotetzat eman zeitzola Xarles, Auger de Mauléon baten semeari. Gizon gazte hori Arrada herriko jaunaren semea zen, eta izenak sala diron bezala, horien aitzinekoak Maulerik Nafarroalat joanik ziren, ikus dezagün nola.

I307 urtean, Züberoako bizkontea eta Nafarroako «ricombre» zen Auger III de Mauléon, Mauleko Oier III.a, lehen kargütik elki züan Edouard I.a Akitaniako dükak (gaineala Ingalaterrako errege zagoanak), eta Nafarroako erregeak Xiberoko azken jaun hori ederki errezebitü züan: Arradako jaun izentatü züan, bai eta «Alferez Mayor» kargü gorala eraiki, armadako entseinari orokor eginez, hots aitzindari gehien ezarriz. Handi zaigü Nafarroako subiranoek Xiberoko «aüzo» txipienganako züen etxekimentüa... Haatik aüzo baizik ez zirena Xiberoa eta Nafarroa? Bi lürralde horien historia doi bat ikertzen dügülarik, galto hori behin beno haborotan agertzen zaigü.

Aipatü dütüdan bi urteen artean, I385ean, Nafarroako Xarles II erregeak San(t) Antoni delako bakearen txapela (baseliza, kapera) eraikarazi züan Muskil-diko mendi tinian. Horrez beren artean basa gerla batetan ari ziren eüskaldün jaun batxügaitzak bakearen egitera bildü nahi zütüan. Bena zer afera züan Xiberoan erresuma «aüzoko» bürüzagiak? Eta zertako haren aitzinekoek «ricombre» izentatü zütüen gerla horietan bedera aldetarik agertüko ziren bi xiberotar, Atharratzeko Gillen-Antso eta Domintxaineko Marti-Antso, haien aitzinetik Gassion, Xiberoko bizkonteak I125ean üken züan ber gradoan? Kargü gora zen «ricombre» horiena: Nafarroako erresuma osoan hamabi ziren, erregearen lagüntzaleak gobernüan, armadako zaldünen aitzindariak ber denboran.

Xarles II.aren iseiü horrek ez züan ondoramenik ardietsi, basa gerla berri-  
 rriz hasi zen eta lüzaz iraün züan. Ondoko mentean, XV.ean, handitüko da  
 Agaramontarren (Agaramontesen) eta Beaumontarren (Beaumontesen) artean.  
 Nafarroa Garailat hedatüren da ondoko mentean, Vianaren eta Juanen arteko  
 aharraren ondorioz, eta Xiberoan ützi-ko deigün frütü hon bakoitxa Bereterre-  
 txen Kantorea date, eüskal literatürako idazki zaharrenetarik bat: Louis de Be-  
 aumonten aldekoek larraintar gazte hori hil beitzüen Etxebarreko Ezpeldoipe  
 altean, olerkiak gertakizünaren berria mentez mente ekarri deigü. Haatik nafar  
 jaun handi hark Xiberoan zer züan ikustekorik? Nolaz Mauleko gaztelüzaina  
 zen, gure lürralde Akitaniako dükarena zelarik üdüriala, badakigün bezala?

Ihardets dezagün azkenean lau aldiz egin galtoer (1307, 1385, 1441,  
 1449): zeren eta zertako Nafarroako erregeek esküa Xiberoko aferetan sar-  
 tzen züen? Arrapostüa bila dezagün historian: Erdi Aroan nolako harremanak  
 zütien Xiberoko jaunek eta Iruñeko erregeek (1178tik Nafarroako errege dei-  
 tüko direnek)? Goatzan Jean de Jaurgain, Eugène Goyheneche eta Jean-Marie  
 Régnier historiazaleen obretara.

## Züberoak zin egiten dü

Züberoako lehen bizkontea, oraiko ustez, Gillen-Azkar dügü. Jaurgain xi-  
 berotar historialariak dioenez (1842-1920), 1023 altean Baskoniako printzea  
 den Antso-Gillenek izentatzen dü. Bera Iruñeko erregearen hegalpean jarririk  
 dago. Errege hori ez zaigü arrotz, Antso Handia da, gure printzearen askazi  
 hüllana, bien aitak kosi lehen izanez.

1078 altean, Antso-Gillenen seme eta ondoko den Erramun-Gillenek hi-  
 tzarmen bat sinatzen dü Biarnoko bizkonte jaunarekin; honen alde ari gei dü,  
 salbü Iruñeko erregearen eta Baskoniako dükaren aitz: salbüespen horiez, bi  
 jaun horien nausigoa aitortzen dü Xiberoko jaunak, bena gisa batez Biarnoko  
 jaunari ere men egiten deio, ezinbestean.

1086tik 1105eala, Biarnoko bizkontea, Akitaniako dükarekin akortean, Xi-  
 beroaz eta Amikuzez jabetzera lehiatzen da, bena borroka hanitxen ondotik, bi  
 eüskal lürralde txipiak hartarik libre baratüko dira, haatik Akitaniaren beitan.

Akitaniaren eta Biarnoren tinkaldiari hobeki bühürtzeko bezala, Xiberoak  
 Nafarroarekiko lotürak azkartüko dütü, eta lehenik Gassion bizkonteari es-

ker. Honek II22an Iruñeko eta Aragoiko errege den Alfontso Borrokalariai zin egiten deio. Horren zerbütüko jarten da güdüketan. Ordariz Beloradoko jaurerria ükeiten dü, eta horrez Nafarroako «ricombre» da, erresumako kargüdün handi, erregeren kontseilüko kide, zaldünen armadako aitzindariarik bat. Alfontso Mauleko gaztelü zaharra eraikiko dü, aspalditik hor zaudean gotorlekü elibaten leküan, eta beren ustez bederen, Nafarroako erregeak gaztelü horren jabe egonen dira I449ko frantses konkistalano.

I234an Züberoako hamargerren bizkonteak zin egiten deio Nafarroako errege berria den Thibaud I.ari. Hau, Champagneko jaunaren semea, amaren aldetik Santxo Azkarra famatüaren lloba da, errege horren arreba Champagneko jaun kontearekin ezkontü beitzen. Xiberoko jaunak Thibaud lagüntü gei dü etsai güzien aitzü, salbü Akitaniako düka den Ingalaterrako erregearen aitzü, hori legezko nausia beiti Xiberook. Baiki Akitanian dago Xiberoa, eta Alienor gure dükesa ezkontü zen Henri Plantagenêt frantses printzearekin: hura laster Ingalaterrako tronüala igan zen, osaba Etienne de Blois erregea haurrik gabe zentü baiko. Hots «ingeles oküpazione» delakotik hürün giaudetzü! Bestalde jakin bedi Thibaud I.arekin hasten dela errege-erregiña franko-eüskaldünen aria lüzea: XV. mentean Foix-Biarnoko etxeari juntatüko da, Nafarroako Leonor eta Gaston IV Foixekoaren ezkontzaren ondorioz.

I244an Xiberoko hamekagerren bizkonteak, aitzinekoaren semeak, bere al-dian zin egiten deio Thibaud I.a Nafarroako erregeari. Denen aitzü lagüntü gei dü, «bereziki Biarno eta Agaramonten aitzü», salbü Ingalaterrako erregearen aitzü (Akitaniako düka denaz geroz), non ez den hori «zure lürrean sartzera jiten».

I327an, hogeü urte hartan Akitaniako dük ingelesak Oier III Maulekoa Xiberoko bizkonte kargütik kentürik, kargüa ber denboran ezabatüz, Xiberoko zinegotzi elibatek hitzarmen bat egiten düe Nafarroako erregiña Blanca I.arekin: hortako haütatü eta izentatü dütü Lextarreko Korteak. Xiberotarrekk erregiñari legartako, urtekal hamar behi eta hiruzpalau izokin emanen deitzoe. Arren aitzinetik Xiberoko bizkontearen eta Nafarroako erregearen artean zagoan hitzarmena hor arraberritü düe. Erregiñak bere aldetik, xiberotarrer segürtatzen deie Nafarroan ogiz eta ardoz düntzeko züzena.

## Bi printzeri

1385ean, ikusi dügü, bakearen txapela, San(t) Antoni, Muskildin eraikarazi züan Xarles II Nafarroako erregeak. Ikusi dügü halaber 1441ean Xarles Arrada eta Maulekoa bere süjet balios bat bezala saristatzen düala Nafarroako Blanca erregiñak. Hau ber urte hortan hilen da.

Laster Beaumonteko Luis nafar jaun handiak Xiberoari zorigaitza eta malürria ekarriko deitzo Bereterretxen herioaz. Ez da hortan baratüko, eta haren alderdiak, gerla zibilez, Gaztelaren (Castillaren) lagüngoarekin, Nafarroako erresuma hanitx apal eramanen dü, Fernando «Errege katolikoaren» aztaparretarat erorteko zohi.

1449ko üztailan, Ehün Urteko gerlaren ürrentzealat, Charles VII Frantziako erregearen izenean, haren armadaren бүрү, Xiberoaz jabetzera horra zaigü Gaston IV de Foix, Biarnoko bizkonte jauna. Lehenik Maule hartzen dü. Bena gaztelüa бүhürtzen zaio, Luis de Beaumonten manaspenean. Horren lagüntzera horra da Juan II Nafarroako basa-erregea, Viana semearen izorrazalea. Bena bospasei mila gizon baizik ez dü, Gastonek aldiz hamar bat mila. Gaineala hau sühia dü. Juanek Gaston Frantziako erregearenganik bereizi nahi lüke, bena biarnesak ihardesten deio Charles VIIri zin egin deiola, eta berak zin hori ezin düala ükatü, ez eta beraz hautse. Nafarroako erregea Xiberorik joaiten da. Ondorioz Mauleko gaztelüak ez dü häütü handirik, errendatü behar dü. Berehala Gastonek Xibero güzia hartzen dü eta bortizki oküpatzen, gure lüraldean eüskaldüngo ezabatü nahiz, etxeen izenak ere eüskaratik biarneseala kanbiatez, bereziki Maulen. Gero Lapurdi hartüko dü 1450ean, eta Baiona 1451n, basa-miraktülü baten lagüngoarekin. Haatik 1510ean, Louis XI Frantziako erregeak Xiberoa Biarnoko jaunari kentüko deio eta xüxenka beretüko dü. Oro har, «frantziar konkistaz» mintzo dira klarki Philippe Veyrin eta Eugène Goyheneche.

1512an Nafarroaren aldi da, bena oraikoan Fernando «errege katolikoaren» eskütik. Gero 1530ean, Charles Quint «Espainia güzietako» lehen erregeak eta Alemaniako enperadoreak Nafarroa Beherea (Baxenabarre) bazter üzten dü, Frantziako erresumari бүрүz zaintzeko gaitzegi beitzai, egiazko zedarririk ez ükenez. Müga bortü hegian finkatzen dü, salbüespen zonbaitekin, haietan Luzaideko ibar-herria, mendien iparraldetik dagoena.

Historia lüze horren irakaspenak argi ditzagün. Lehenik zer ikusten dügün: lau mentez igaranik, Xiberoak bi printzeri zin egiten deie. Bata berezko jauna dü lege feodalez: Akitaniako düka, noizbait Ingalaterrako tronüala igarana; bestea Iruñeko (Pamplonako) erregea edo erregiña, Nafarroakoa deitürük 1178tik.

## Andorrek bezala!

Nolaz bi printze ükeiten ahal güntüan? Üdüriala ez dü ganore, ezpiritü jakobinoentzat iholaz ez daite. Bena badena badago, agitü dena ez dügü ezabazten ahal, gure gaurko logika eta gogoaren arabera ezin honartüa zaigülakoan. Gertatü den bezala hartü behar dügü.

Ez dezagün bürürik hauts, ez eta hürrünegi bila. Etsenplü bat iraunkorra badügü hebentik aski hüllan, Pirinio bortüaren erdixetan, menditar errepublika txipi bat, katalan herria gaineala, «Andorrako Printzerria».

Eta bai! Andorrek bezalaxe, Xiberoak Erdi Aroan bi printze bazütüan: bata bortxazkoa ordüngo sistemaren arabera, eta hura erran delako Akitania-ko düka, Alienor handiaren ondokoa; bestea Iruñeko erregea edo erregiña, Xiberoak bere nahiz hartürik, Biarnori eta Akitaniari bürü emaiteko. Lehenari zin orokorra egin behar zaio nahi ala ez. Bigerrenari zin sinplea egiten zaio haütüz.

## Garaia eta Beherea

Espainiako erregeen konkistak Nafarroako erresuma ez züan osoki beretü ahal üken. 1530eko zatiketatik landa, iparraldean iraun züan, Nafarroa Beherea edo Baxenabarre deitüko zen lürralde berri hortan, Frantziako Iraultzalano. Arte hortan Louis XIII erregeak 1620an independentziatik autonomiala eraitsi züan, bena ez desegin. Nafarroa Garaia bezain nafarra da Nafarroa Beherea, eta «Nafarroa» izen orokorra iparraldekoari zor zaio hegoaldekoari bezainbat, bi-biena beita, erredola bakoitxarekin, eta ez parte batena, handiena izanik ere. Baxenabarre osoki fidel egon zen Nafarroako errege lejitimoei, eta orain arte beste eüskal lürralde güziek beno hobeki etxeki dü «Lingua Navarrorum» delakoa, nafartarren hizkuntza.

Züberoaren eta Nafarroaren arteko harremanak ere ez dira 1449an eküratü. Politikazko lotürak etenagatik, beste güziak garatü dira, salbü Frankismoaren berrogei urte goibelatan: ekonomian, hizkuntzan, jentetzan, eta abar... Lüzaz xiberotarrak Nafarroa Garailat igaran dira komertzio edo ofiziale lanetarako. Hemeretzügerren mente ondarrealat, hankoak honarat jiten hasi ziren, bereziki espartañan lana emendatü zelarik Maulen eta üngürünetan.

Haatik erran berri düdan bezala, Nafarroa Beherea dügü Nafarroako partetik hüllanena. Oxkaxeko lepo famatüa ez da Himalaia, hirur ehün metrako desnibela baizik ez dü, Ainharbe, Barkoxe, Larrabileko patarrek beno haboro-xeago. Gainea osoki Xiberoan dago, Baxenabarre beste zolan hasten da. Iparrealatago, Amikuzerekin iholako mügarik ez dügü, Domintxaine-Berroetarik landa Behaskanera heltzen gira ordoki tipilez, oharkabean. Hizkuntzan ere müga klarrik ez da borogatzen, emeki-emeki zübereratik igaraiten gira ekialdeko behenafarrera hortarat, gure mintzajearen egite handia beitätü, ahairetik kanpo, bereziki «ü» frankorekin Lapurdiko Bardozerano.

Pettarrean eta Arbailako eki sargian (mendebalean), etxekandere hanitx badügü Garazi, Oztibarre, Amikuzerik ezkontzaz jinik, bereziki laborari etxeetan.

Ez ahatz bestalde xiberotar elibatek Donapaleu aldean bete eta betatzen düen lekü ederra. Jakintsünen artean aipa ditzadan bereziki Eneko Ezponda hamaseigerren mentean, Oihenart hamazazpigerrenean, Beñat Mardo hamazortzigerrenean, aita Etchécopar hemeretzügerrenean, Junes Casenave Harigile hogeigerrenean.

Harreman jori eta barnoiak dütügü Xiberoaren eta Amikuzeren artean: bereziki Lur Berri kooperatiba taldean, laborantxako erakunte saldoan, Jean Errécart ikasgian eta Sokorri artagian.

Gainea badira, bena hanitxek ez dakie, zazpi xiberotar herri Donapaleuko kantonamentüan, eta holaz hori ez da osoki «Amikuzeko kantonamendua». Hor badago halako Züberoa «irredenta» zazpi herri horietarik bakoitxak bere haütetsia (delegatüa) badü Xiberoko Sindikat edo «Commission syndicale du Pays de Soule» delakoan, bortüko hamabi mila hektara alhagia eta oihanen kudeatzeko, beste xiberotar herri güziekin batean.

Züberoa eta Nafarroa bizi dira eta bizi nahi. Algarren artean harremanak etxekitzen eta garatzen dütüe, askazi eta lehen aüzo honen artean egin behar den bezala. Gure historia ez zen I449an ürrentü, ez I512an, ez I530ean, ez I620an, ez eta I789an ere. Arren, jo aitzina!

## ERANSKINA

# IRUÑEKO ETA NAFARROAKO ERRESUMAKO ERREGE-ERREGINEN IZENDEGIA

## IRUÑEKO ERRESUMA

## Aristatarrak

	IZENA	BESTE IZEN BAT(ZUK)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
1	Eneko Enekoitz	Eneko Arista	824-851/852	Íñigo Arista Íñigo Íñiguez	Iñigo Arista
2	Gartzia Enekoitz	Gartzia I.a Enekoitz	851/852-882	García Íñiguez	García Íñiguez / García I <sup>er</sup>
3	Orti Gartzeitx	Orti Begibakarra edo Orti Monjea	882-905	Fortún Garcés el Tuerto / el Monje	Fortún Garcés le Borgne / le Moine

## Ximenotarrak

	IZENA	BESTE IZEN BAT(ZUK)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
4	Antso I.a Gartzeitx		905-925	Sancho I Garcés	Sanche I <sup>er</sup> Garcés
5	Gartzia I.a Santxitz	Gartzia II.a Santxitz	925-970	García Sánchez I	García I Sánchez / García II
6	Antso II.a Gartzeitx	Antso Abarka	970-994	Sancho Garcés II / Sancho Abarca	Sanche II de Navarre / Sanche Abarca
7	Gartzia III.a Santxitz	Gartzia Dardartia	994 - ca. 1000	García Sanchez II / García Sánchez el Temblón	García Sánchez le Tembleur / García III



8	Antso III.a Gartzeitz	Antso Nagusia	1000-1035	Sancho III Garcés / Sancho el Mayor	Sanche III Garcés / Sanche le Grand
9	Gartzia IV.a Santxitz	Gartzia Naiarakoa	1035-1054	García Sánchez III, García el de Nájera	García IV Sánchez
10	Antso IV.a Gartzeitz <sup>1</sup>		1054-1076	Sancho Garcés IV / Sancho el de Peñalén	Sanche IV Garcés
11	Antso V.a Ramiritz		1076-1094	Sancho Ramírez / Sancho V de Pamplona (Sancho I de Aragón)	Sancho Ramírez / Sanche V de Pampelune (Sanche I <sup>er</sup> d'Aragon)
12	Petri I.a	An	1094-1104	Pedro I	Pierre I <sup>er</sup>
13	Alfontso I.a <sup>3</sup>	Alfontso Borrokalaria	1104-1134	Alfonso I / Alfonso el Batallador	Alphonse Ier le Batailleur / Alphonse le Batailleu
14	Gartzia V.a Ramiritz <sup>4</sup>	Gartzia Berrezarlea:	1134-1150	García Ramírez / García el Restaurador	García V / García le Restaurateur
15	Antso VI.a Gartzeitz <sup>5</sup>	Antso Jakituna	1150-1194	Sancho VI de Navarra / Sancho el Sabio	Sanche VI de Navarre / Sanche le Sage
16	Antso VII.a <sup>6</sup>	Antso Azkarra edo Antso Entzerratua	1194-1234	Sancho VII / Sancho el Fuerte	Sanche VII / Sanche le Fort

<sup>1</sup> Antso Noblea edo/eta -hil ondoan- Peñalengoa

<sup>2</sup> Aragoiko eta Nafarroako erresumetakoa.

<sup>3</sup> Anaia; haurrik ez.

<sup>4</sup> Gorteek hautatua.

<sup>5</sup> Gartziaren semea.

<sup>6</sup> Seme-alabarik ez; iloba premu.

## Champagnetarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(κ)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
17	Tibalt I.a <sup>7</sup>	Tibalt Trobadorea edo Tibalt Hilondokoa	1234-1253	Teobaldo I / Teobaldo el Trovador	Thibaut I <sup>er</sup> / Thibaut le Posthume / Thibaut le Chansonnier
18	Tibalt II.a <sup>8</sup>	Tibalt Gaztea	1253-1270	Teobaldo II / Teobaldo el Joven	Thibaut II
19	Henrike I.a	Henrike Gizena	1270-1274	Enrique I / Enrique el Gordo	Henri I <sup>er</sup> / Henri le Gros
20	Joana I.a <sup>9</sup>		1274-1305	Juana I	Jeanne I <sup>re</sup>

## Kapetarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(κ)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
21	Luis I.a <sup>10</sup>	Luis Setatia	1305-1316	Luis I / Luis el Obstinado	Louis I <sup>er</sup> / Louis le Hutin
22	Joan I.a <sup>11</sup>	Joan Hilondokoa	1316-1316	Juan I / Juan el Póstumo	Jean I <sup>er</sup> / Jean le Posthume
23	Filipe II.a <sup>12</sup>	Filipe Luzea	1316-1322	Felipe II / Felipe el Largo	Philippe II / Philippe le Long
24	Karlos I.a <sup>13</sup>	Karlos Burusoila edo Karlos Ederra	1322-1328	Carlos I / Carlos el Hermoso/Calvo	Charles I <sup>er</sup> / Charles de Bel
25	Joana II.a <sup>14</sup>		1328-1349	Juana II	Jeanne II

<sup>7</sup> Iloba.

<sup>8</sup> Semea.

<sup>9</sup> Bi horien arreba. Senarra Filipe Ederra (Filipe I.a).

<sup>10</sup> Joanaren semea.

<sup>11</sup> Luisen semea. Bizi laburra izan zuen.

<sup>12</sup> Luisen anaia.

<sup>13</sup> Luisen anaia.

<sup>14</sup> Luisen haur gehiena. Senarra Filipe Evreuxkoa.

## Evreuxtarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(K)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
26	Karlos II.a <sup>15</sup>	Karlos Gaiztoa	1349-1387	Carlos II / Carlos el Malo	Charles II / Charles le Mauvais
27	Karlos III.a <sup>16</sup>	Karlos Noblea	1387-1425	Carlos III / Carlos el Noble	Charles III / Charles le Noble
28	Zuria I.a <sup>17</sup>		1425-1441	Blanca I	Blanche I <sup>e</sup>

## Trastamaratarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(K)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
29	Karlos IV.a <sup>18</sup>	Karlos Vianako Printzea	1441-1461	Carlos IV / Carlos de Viana	Charles IV / Charles de Viane
30	Zuria II.a <sup>19</sup>		1461-1464	Blanca II	Blanche II
31	Leonor <sup>20</sup>		1464-1469	Leonor	Éléonore

## Foixtarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(K)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
32	Frantzisko Febo <sup>21</sup>		1479-1483	Francisco I de Foix / Francisco Febo	François Phébus
33	Katalina <sup>22</sup>		1483-1517	Catalina	Catherine

<sup>15</sup> Joana II.aren semea.

<sup>16</sup> Karlos II.aren semea.

<sup>17</sup> Karlos III.aren alaba. Senarra Joan Aragoikoa.

<sup>18</sup> Zuria I.aren semea.

<sup>19</sup> Zuria I.aren alaba.

<sup>20</sup> Zuria I.aren alaba.

<sup>21</sup> Leonorren arrasemea.

<sup>22</sup> Frantzisko Feboren arreba.

NAFARROAKO ERRESUMA  
(NAFARROA BEHEREAN)

### Albretarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(κ)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
34	Henrike II.a <sup>23</sup>		1517-1555	Enrique II	Henri II
35	Joana III.a <sup>24</sup>	Joana Albretakoa (1560)	1555-1572	Juana III / Juana de Albret	Jeanne III / Jeanne d'Albret

### Borboitarrak

	IZENA	BIGARREN IZENA(κ)	ERREINALDIA	GAZTELANIAZ	FRANTSESEZ
36	Henrike III.a <sup>25</sup>	Henrike Bearnotarra	1572-1610	Enrique III	Henri II
37	Luis II.a <sup>26</sup>		1610-1620	Luis II	Louis II

<sup>23</sup> Amaren premua.

<sup>24</sup> Henrikeren alaba. Kalbinista (1560).

<sup>25</sup> Ama Joana II.aren ondokoa, ez aitarena. Frantziako errege ere izan zen 1589tik aitzina.

<sup>26</sup> Nafarroa erantsi zion Frantziari. Frantziako errege ere izan zen Louis XIII.a izenez.